

noaua

**Udal hauteskundeak 2019:
Hautagaiekin aritu gara
solasean**

**Ingemarreko langileak:
“Gure borroka ez da
hemen bukatu”**

**Udajolasen izen-ematea
maiatzaren 23an
amaituko da**



Argazkia: David Hernandez / tokikom

**Joxan Artzeri ikasitakoak
Txakur Gorria kolektiboa eta Peru Galbete
Sutegin arituko dira maiatzaren 24an**



*Jantzi kolorez zure etxe,
balkoi zein lorategia!*



San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



Israel & Grecia

TALDE BIDAIA
Irteera 2019ko irailean

Lasarte-Oriatik, NOAOAk gidatua



943 37 36 13

info@noaaa.eus

noaaa.eus

31 ETXEBIZITZA BERRI UGARTONDON



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa

943 30 29 20

www.sukia.com

sukia

Zure etxean zaude

Albiste irudituan

'Galerak' diskoa, artista askoren topaleku

Orain ikusi du argia. *Galerak* (Gaztelupeko Hotsak) diskoaren ernamuina ordea, aspaldikoa da. "Duela 14 urte hasi nintzen proiektu honekin", Alex Tellok CD-DVDaren aurkezpenean aditzera eman zuenez. "Garai hartan poema batzuk idatzi nituen etxean eta hortik garatu den prozesuak dimentsio handia hartu du. Azken txanpan, Gaztelupeko Hotsak argialetxearen babesa eta bultzada oso lagungarria izan da".

Diskoak badu azpi-izenburu bat, lan osoaren nondik norakoa ulertzeko ezinbestekoa: *Oihana Alkortaren poema baten segida*. "Oihana Zarautzen ezagutu nuen eta 2005. urtean bere poema bat kantatu zidan", aitortu zuen Tellok. Bat kantaria, bestea antzezlea. Sormenerako grinak batu zituen biak. Diskoa hain



Aurreko astean aurkeztu zuten *Galerak* (Gaztelupeko Hotsak) CD-DVDa, Alex Tellok zuzendu duen lan kolektiboa. Usturbil, Lizardi eta Laurok dendetan erosi dezakezue.

zuzen, Oihanak Alexi behin kantatu zion poema harekin zabaltzen da.

Doinuen konposizioa Ignacio Arakistain eta Lucia Arzallus pianojole gazteen esku utzi zuen Tellok. Eta behin estudioan, kantarien txanda iritsi zen. Batzuk ibilbide luzeko artistak dira (Labrit Zabala, Aitor Gorosabel, Jon Gurrutxaga, Xabi San

Sebastian), besteak ezezagunak edota hasiberriak (Natali, Couple, Bihozkada).

Xabier Sagasta marrazkilaria denak dira disko irudiak eta diseinu lanak.

Galerak eskuratzen duenak ez du soilik CD bat eskuratuko. Iazko azaroan NOAUA! Kulturaldiaren baitan eskaini zuten kontzertua ere DVD batean betikotu baitute.

Laburrean

Aginagako eskola kideen topaketa

Ekainaren 9ko Gipuzkoako Eskola Txikien jaia girotze aldera, atzoko eta gaurko Aginagako Eskolako kideen topaketa antolatu dute maiatzaren 25erako. Argazki erakusketa eta bazkari baten bueltan bilduko dira.

Lehen sorospenen ikastaroa

Ikastaro teoriko eta praktikoa, maiatzaren 27tik ekainaren 5era, astelehene-tik ostiralera, 10:00-14:00 artean DYA-k Munalurra 26an duen egoitzan. Edonori zuzendua, talde mugatua. Izen emateko: dyagipuzkoa.com / 943 46 46 22.

Maiatzaren 25ean, ohiko azken kantu-jira

Ikasturteko ohiko hileroko azken kantu-jira egingo dute maiatzaren 25ean. 12:30ean abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Udako etenaldiaren aurretik ordea, saio berezirik izango da hurrengo astetan zehar.

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usturbil
943 360 321 ||| elkartea@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,

Jon Galbete.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96


ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:

erredakzioa@noaua.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Ixaso Orbegozo

Zu bai ausarta

Maiatzeko aste-buruak ekitaldiz beteta datorzkigu. Denok hain maite dugun Sagardo Eguna, beharbada, gehienontzat huts egiterik ez dagoen zita nagusia. Oraingoan, ordea, ez dut Sagardo Eguna izango hizpide. Asteburuan ospatu zen Tximeleta Taldearen topaketaren harira arituko naiz. Gimnasia erritmikoa maite dugunok, eta batez ere praktikatu dugunok, ezin hobeto dakigu nerbioak dantzan izatea zer den. 10 metro karratuko tapiza zapaldu eta heldutasunaren puntu gorenera heltzeko beharrak, kontzentrazioak eta familia eta lagunaren begiradak sentitze horrek behin baino gehiagotan eragin digu ustekabekoren bat.

Bost urterekin lehenengo aldiz mailota eta punterak jantzita tapizaren gainean

jartzeak zer nolako zirrara eragiten duen ondo baino hobeto dakigu gimnasta izan garenok. Denboraldi hasieran aurkitzen diren aurpegi berriak, gazteagoengandik datozen mirespena eta lilura... Ondo gogoan dut urriko lehen egunetan hain maite genuen entrenatzailearen ahotik talde berrien antolaketa entzutea, eta nola ez, elkari urtero egiten genion galdera: mutilik izango al da aurtengo? Urtero, hutsik egin gabe, urtero, egiten zen galderarik garrantzitsuenak. Behin edo behin mutilen batek eman zuen ize-na, lagunei barre eginarazteko edo. Bazen beti "graziosoren" bat. Duela bost bat urte hartu genuen sorpresa ederra, lehen aldiz, mutil batek benetan ize-na eman zuela ikustean. Balleta urtebetez praktikatzetik zerbait berria probatzera zetorren Unai Arrieta. Egun, Espainiako onenen artean da. Zenbat txu-

txumutxu entzun behar izan ote zituen gorputzera pegatzen den mailotarekin aritzeagatik, edo horrenbeste harrizten gaituen "Espagat" egiteagatik. Ni inoiz ez ninduen inork epaitu, edo ez behintzat zentzu horretan.

Emakumeak kirol "femeninoak" praktikatzen. Normala deritzogu. Askorentzat morboa ere ematen omen du mailot estu horiekin jantzitako emakumeak eta neskatilak ikusteak. Mutil bat horrela jantzita ikustea, ordea, pertsona berberak bestela jasotzen dute. Genero-estereotipoak jokoan sartzen dira eta... (UNGA UNGA). Marikoia askorentzat; nik ausart hitzak hobeto definitzen duela uste dut. Ausarta alde batetik, gogoko duena egiteak inolako lotsarik ematen ez diolako. Ausarta bere sexualitatearen inguruko etiketak jarriko dizkiela jakin-

da, aurrera jarraitzeko indarra atera duelako. Ausarta egunero-egunero tapizean bere usteak defendatzen dituelako. Ausarta eguneroko borrokan aurrera diharduelako.

Geroz eta mutil ausart gehiago daude soinketa erritmikoaren munduan, bai eta balleta, igeriketa sinkronizatua edota irrastaketa artistikoan ere. Tximeletaren topaketan hiru mutilek hartu zuten parte; lehen, berriz, baten bat ikustea nahiko zaila izan ohi zen.

Zein gogorra eta tristea egiten zaidan, aldi berean, ausart hitzarekin definitzea gisa honetako pertsonak. Gustoko duena egitera animatzen den horri zorioneko baino ausart deitu behar. Zenbat aldiz gehiago izan behar ote dugu ausart, askatasunez erabakitzeak aukera izan arte?

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | **Ixaso Orbegozo** | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

Jai Batzordearen deialdiak

Maiatzaren 17an amaituko da ekainaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko ditugun Usurbilgo jaietako txupinazorako hautagaiak proposatu eta egitaraua

diseinatzeko txapelketara lanak aurkezteko epea.

Maiatzaren 20an, diseinu txapelketako irabazlea

Maiatzaren 20an erabakitzeakoa


du gero Jai Batzordeak, diseinu txapelketako irabazlea.

Maiatzaren 22an, jai batzordearen bilera

Maiatzaren 22an asteazkena,

Potxoenean herritar nahiz eragileentzat deitutako bilera irekian berriz, txupinazoa nork edo nortzuk jaurtiko du(t)en erabakiko da. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da bilera.

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Beterri Buruntzako EH Bildu: “Datorren legealdian gure mankomunitatea errealitate bat izango da”

Gure herri eta gure eskualdeko herritarron bizitzak “hobetuko dituzten egitasmo eta politikak lantzea, bultzatzea eta gauzatzea”. Konpromiso honekin aurkeztuko dira maiatzaren 26ko udal hauteskundeetara Beterri Buruntza eskualdeko EHBilduren 6 alkategaiak: Andoni Alvarez (Andoain), Xabier Urdangarin (Astigarraga), Xabi Lertxundi (Hernani), Jon Martin (Lasarte-Oria), Ainara de Miguel (Urnietia) eta Agurtzane Solaberrieta (Usurbil).

“Datorren legealdian gure mankomunitatea errealitate bat izango da”, adierazi dute EHBilduko sei alkategaiak.

Gogoan izan, Beterri Buruntzako delata, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoa osoan egitura juridiko administratibo propioirik ez duen eskualde bakarra. Zortzi urte daramatzate udaletatik “lanean, eskualdea batu, koheSIONATU eta elkarlanean egitas-



Eskualdeko herritarrak hobeto bizitzeko, bizi kalitatea hobetzeko konpromisoa erdietsi zuten joan den astean, Lasarte-Orian egindako agerraldian.

MANKOMUNITATEA, ZUBI

“Gure eskualdeko herritar guztien beharrei berdin erantzungo dien baliabideak eskainiko dizkie”

mo eta jarduerak bideratzen”. Beterri Buruntzak mankomunitate propioa izateak zerbitzuen berdintasuna sustatzeko aukera ezinhobea emango duela adierazi zuten, “ez baitugu sinesten hiriburuan soilik pibo-

tatzen duen Gipuzkoa batean. Gipuzkoar guztiak lehenengo mailako herritar izango diren Gipuzkoa borrokatuko dugu”. Adibide moduan aipatu zuten, Lanbideren enplegu planak edota Foru Aldundiaren egitasmo eta laguntzak eskualdera heltzeko zubia izango da mankomunitate berria.

“Gure eskualdeko herritar guztien beharrei berdin erantzungo dien baliabideak eskainiko dizkie. Gure sei herrietako biztanleek maila bereko herri-

tarrak izatea dugu helburu, beraien beharrei modu berean erantzutea herriz herri, herritarrak baitira gure politiken erdigune”, adierazi zuten sei alkategaiak.

Bilera eta ekitaldia

Asteotan arloka herritar eta eragileekin egindako bilera erronda larunbatean borbilduko du EHBilduk, hilaren 18an, 12:00etan Sutegi kanpoaldean gazteekin deitu duen bilera irekiarekin. Datorren legealdiko egitasmoak aurkeztu eta ekarpenak biltzeko saioa izango da.

On/In jaialdia

Larunbatean baita, baina 18:00-20:00 artean Artzabalgo berdegunean, On/In jaialdia antolatuko du Usurbilgo EHBilduk. Herriko sortzaileen emanaldiak, umeentzako txokoak eta jolasak, pintxoak eta edatekoak, hautagaien zinta jokoa... eta beste-lako sorpresak iragarri dituzte.

EAJ-PNV: “Gipuzkoa orain dela lau urte baino sendoagoa da gaur egun ekonomian eta gizarte mailan”

EAJ-PNVk “topera eta ehuneko ehuneko” ireki zuten maiatzaren 26ko Udala, Foru eta Europako hauteskundeetarako kanpaina. Donostiako ekitaldian Josune Urkola Usurbilgo hautagaiak hartu zuen parte.

Andoni Ortuzar Euzkadi Buru Batzarreko presidentek EAJren aldeko botoak balio hirukoitza duela azaldu zuen Donostiako ekitaldian: “ondo gobernatutako udalak, ondo bideratutako Aldundiak eta Europan ahots euskalduna ziurtatzeko, gurea defenda dezan”.

Markel Olano ahaldun nagusirako hautagaiaren esanetan, “Gipuzkoa orain dela lau urte



Udala, Foru eta Europako hauteskunde kanpaina Donostian abiarazi zuen EAJ-PNV alderdiak. Buruntzaldeko hautagaiak ere ekitaldian hartu zuten parte.

IZASKUN BILBAO

“Tresna bikaina gara, gauza bera esaten eta egiten dugulako herri txikiaren udalean eta Europako Parlamentuan”

baino sendoagoa da gaur egun, ekonomia eta gizarte mailan aurrera egin duelako”. Hala ere, martxan jarraitzeko beharra azpimarratu zuen, Gipuzkoaren etorkizuna irabazteko, “harro sentitzeko moduko” lurralde bat eraikitzen jarraitzeko. “Datozen

hauteskundeetan EAJ-PNVk eskaintzen die herritarrei hitza, eskaintzen die eraginkortasuna, elkarlana eta etorkizuna, guztion artean Gipuzkoa sendotzen jarraitzeko”.

“Lantalde bat gara”

Izaskun Bilbao Barandica Europako Parlamentuko diputatu EAJren alde bozkatzearen abantailaz aritu zen: “Lantalde bat gara. Erakunde hurbila gara, pertsonak helburu dituen. Tresna bikaina ere bagara, entzuten dugulako, gauza bera esaten eta egiten dugulako herri txikiaren udalean eta Europako Parlamentuan. Beraz, maiatzaren 26an, bat egin EAJren ereduarekin”.

Ane Labaka: “H-Artzetik, poesia musu zapietan emanaldia poliedrikoa da”

Jexux Artze Elkartearen eskutik “H-Artzetik, poesia musu zapietan” ikuskizuna eskainiko dute Sutegin maiatzaren 24an Txakur Gorria Kolektiboak eta Peru Galbete musikariak. Azken hau usurbildarra da. Txakur Gorria Kolektiboko kideetako bat, Ane Labaka lasartearra da eta bertsolaritzan egiten ari den lanagatik ezaguna egin da azken urteetan. Nerea Ibarzabal bertsolaria, Malen Amenabar eta Mariñe Arbeorekin batera osatzen dute kolektiboa, eta orain, guztien artean Artzeren poesiak errezitatuko dituzte hainbat euskarritan. Ane Labaka eta Peru Galbeterekin izan da NOAA!, ikuskizunaren nondik norakoak ezagutzeko.

NOAUA! Joxan Artzeren poemak ekarriko dituzue gogora zuen ikuskizunean. Bi belaunaldi desberdinetakoak zarete. Zerk piztu du zuen arreta?

Ane Labaka: Ikuskizunerako Artzeren liburu guztiak arakatu ditugu denon artean eta nire arreta, bereziki, lehen aroko poemek erakarri dute, joko fonetiko nahiz bisualak burutzen dituztenek. Irakurlearekiko harremana ulertzeko moduak ere zer pentsatu handia eman dit.

Peru Galbete: Enkargu bat izan zen Loralditik. Txakur Gorriakoei eskaini zieten eta ondoren, niri esan zidaten beraiekin parte hartzeko ikuskizuna prestatzen. Ni nola Usurbilgoa naizen ezagutu nuen Artze nahiz eta adin tarte handia izan. Txakur Gorriako Mariñek bazekien Artze gustuko nuela eta hortik etorri zen dena.

N. Artzeren lanetara hura hil eta gero hurbildu dira hainbat, zuek ere heriotzaren ondoren ekarri nahi izan dituzue gogo-



Ane Labaka lasartearra, Nerea Ibarzabal, Malen Amenabar eta Mariñe Arbeok osatzen dute Txakur Gorria kolektiboa. Peru Galbeterekin batera “H-Artzetik, poesia musu zapietan” ikuskizuna eskainiko dute maiatzaren 24an Usurbilen.

ANE LABAKA

“Diziplina ezberdinak uztartuz burutu dugu ikuskizuna”. Maiatzaren 24an, 20:00etan Sutegin. Sarrerak aurretik eskura daitezke Lizardin

ra haren lanak. Zergatik hautatu duzue momentu hau?

A. L: Guk Artze Mikel Laboaren abestietatik ezagutzen genuen gehienbat, gure belaunaldi inguruko askok bezalaxe. Berarengana beste modu batean hurbiltzeko momentua ez dugu guk hautatu. Kanpotik, Loraldia Jaialditik egin ziguten proposamena eta guk onartu egin genuen.

P. G: Nahiz eta Artze hilda egon, nik lan hau gustura egingo nuen beste momentu batean ere. Honen aurretik ere beti izan dut buruan Artzeren poemekin zerbait egitea, ikus-entzunezko arloan ere ibiltzen naiz eta gonbita luzatu zidatenean niretzat ohore handia izan zen.

N. Txakur Gorria kolektiboan

irudia eta testua lantzen dituzue. Peru Galbete, berriz, musika munduan ibiltzen da. Nola bururatu zitzaizuen lan bateratu hori egitea?

A. L: Txakur Gorrian ohituta gaude diziplina ezberdinak uztartzen (irudia, testua, dantza, bertsoa...) eta oraingoan ere nahiko modu naturalean ohar-tu ginen musikari batek asko jantziko lukeela guk egin nahi genuena. Horregatik luzatu gunion proposamena Peruri.

N. Ane, Peruk zer eman dio ikuskizunari?

A. L: Atmosfera musikal eta soinu-zoko oso batez jantzi du emanaldia. Berak ezagutzen duenetik, asko lagundu digu bai emanaldiaren sormen prozesuan eta baita, ikusi, entzun eta sentitu daitekeen moduan, emanaldian bertan.

N. Eta Txakur Gorriak zer eman dio ikuskizunari, Peru?

P. G: Izugarritzko esperientzia. Eskaintza hau heldu aurretik ezagutzen nituen eta niretzat oso gazteak izanda euren lana gustuko izan dut beti. Oso abe-

ratsa izan da hau guztia. Beraiek ere mundu ezberdinetatik datoz eta hori dena biltzea eta denok batera lan egitea oso aberatsa da; beste iturri batetik hartzea da.

N. Diziplina ezberdinetakook osatutako lanaren emaitza da “H-Artzetik, poesia musu zapietan” ikuskizuna. Fusio hori nola definituko zenuke?

A. L: Artzeren lan ezberdinen aukeraketa eta interpretazio moduko bat da. Gure egungo begiradatik eta diziplina ezberdinak uztartuz burutu duguna. Badu errezitalditik, badu kantalditik, badu antzerkitik... Baina ez da ez errezitaldia, ez kantaldia, ez antzerkia. Emanaldi poliedrikoa da.

P. G: Artzeren unibertsoa, berak hitzez lantzen zuen iruditegi osoa errazago egin zaigu taula gainera eramaten erre-kurso ezberdinekin. Sartzen da errezitaldia, baina baita ere musika, soinua, proiektzioa, performance zatiren bat... Nahi genuen zerbait egin ahalik eta hoberen islatuko zuena poema bakoitza.

Peru Galbete: “Ilusio berezia egiten dit”

NOAUA! Ikuskizunaren izenburuak, “H-Artzetik, poesia musu zapietan” zer pentsatua ematen du. Azalduko zeniguke nondik datorren?

Ane Labaka: Artzeri buruz dokumentatzen ari ginela hasiera hasieran aipatu ziguten noizbait bere poemaren bat edo beste tabernaren bateko musuzapiren batean idatzita utzi izan zuela eta ideia horri tiraka, izenburu hau bururatu zitzaigun.

Peru Galbete: Joxan Artzerengana hurbiltzeko daukagun modua da. Artzetik, baina bai-



Peru Galbete betidanik izan du gustuko Artzeren poetika.

ta ere gure zerbait eskaintzea.

N. Artzeren jaioterrian arituko

zarete. Horrek are bereziago egingo du maiatzaren 24ko emanaldia?

A. L: Bai, emanaldia sortzen ari ginela gure artean aipatu genuen, dagoeneko ederra litzatekeela Usurbilen egitea eta gauzak zer diren, estreinatuta aurretik deitu ziguten Usurbildik bertatik maiatzean plazaratu genezan.

P. G: Ez dut aukera askorik izan nire herrian aritzeko eta ilusio berezia egiten dit. Nahiz eta orain hemen ez bizi, urte asko egin ditut eta horrelako zerbait eskaintzeko aukera izatea opari modukoa da. Ez da soilik nire herria gainera, poetarena ere bai, eta horrek are bereziago egiten du.

“Harria Hitz” ibilbidea, orain irisgarria eta inklusiboa

Usurbilgo kultur altxorak ezagutzeko ahalbidetzen digun Harria Hitz ibilbidea inklusiboa izango da aurrerantzean, egunotan aurkeztu duten mugikorretarako aplikazio bati esker. Egitasmoa Udalak, Elhuyar Fundazioak eta AccessibleForAll enpresak sustatu dute.

AccessibleForAll enpresak irisgarritasun-aholkularitza eskaini du, horretan oinarrituta Elhuyar Fundazioak garatu du mugikorrerako aplikazioa eta Usurbilgo Udalak diruz lagundu du diziplina anitzeko elkarlana sustatu duen egitasmo hau. Lehendik ibilbide hau egiteko bazen “Adi Usurbil” aplikazioa hobetu da urrats honekin. Aplikazio hau, Harria Hitz ibilbidearen egitasmoa abiatu eta gutxira jarri zuten martxan. Orain irisgarri eta inklusibo bilakatu dute ibilbide hau, edonork muga guztien gainetik, duintasunez eta inolako bazterketarik gabe egiteko modukoa.

Egitasmo berri honen xehetasunak hilabete hasieran plazaratu zituzten sustatzaileek



Udalak, Elhuyarrek eta AccessibleForAll enpresak aplikazio bat garatu dute.

ADI USURBIL APP

Aplikazioak irisgarri eta inklusibo bilakatu du ibilbide hau, edonork muga guztien gainetik, duintasunez eta inolako bazterketarik gabe egiteko modukoa

plazan egindako agerraldian. Eta probak ere egin zituzten. Usurbilen kalitatezko aisialdia eskaini asmoz, ezinbestekotzat jo zuten herri geroz eta inklusiboagoa izatea.

Herria hobeto ezagutzeko

Mugikorrerako aplikazioak Usurbila datorren edonork edota bertakoek ere herria hobeto ezagutzeko aukera izan-

go dute, ezgaitasun fisikoak, kognitiboak edota ikusmen zein entzumenari lotutakoak izan edo ez. Hala, mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilbide lagungarria eta apar-kalekuen PMR plazei, komun egokituei edota puntu kritikoei buruzko informazioa jaso ahal-ko dute. Itsuek edo ikusmen murriztua dutenek, ibilbideko toki bakoitzeko edukia, puntu kritikoei buruzko informazioa edota orientatzeko argibideak. Entzumen urritasuna dutenek testu idatzien eta mapen bidez jasoko dute ibilbidearen gaineko informazioa. Urritasun kognitiboa dutenek erraz irakurtzeko moduko sistema izango dute eskura, Euskadiko Irakurketa Errazeko Elkarteak

eginiko lanari esker.

Bestalde, azalpenak ahalik eta hizkuntza gehienetan ulertu ahal izateko Elhuyarrek itzulpen automatikoa baliatzen duen azalpenen testuak kudeatzeko web-plataforma bat jarri du.

Bestelako egitasmoetan ezartzeko aukera

Aplikazio hau Android eta iOS gailu mugikorren irisgarritasun aukerekin bateragarria da eta edonork zuzenki eta malgutasunez erabiltzeko aukera ematen du. Aipatu moduan, herritar nahiz bisitari orori kulturaz, aisialdiaz edota zerbitzu publikoez duintasunez eta inolako bazterketarik gabe gozatzeko duten eskubidea bermatu nahi zaio.

Aitzindaria den egitasmo hau ahalik eta gehien zabaltzeko nahi dute sustatzaileek, irisgarritasuna eta inklusibotasuna zabaltzeko eta bermatze aldera. Harria Hitz ekimenerako baliatu duen irtenbide hau beste ibilbide batzuetan ere inplementatzeko pentsatua dagoela gaineratzen dute sustatzaileek.

Maiatzaren 24an, gazteak hitza hartzera deitzen ditu GuraSOsek

Hauteskunde kanpaina honetan eragile politikoek soilik ez, gizarteak ere zeresana duelako, Gipuzkoa hitza hartzera deitzen du GuraSOsek. Oraingoan, gazteak bereziki, “klima-aldaketara eta ingurumen-suntsipenera eramán gaituzten inertzia eta eredia zuzentzeko mobilizazioak” Europa osoan zabatzen ari diren honetan hain zuzen. Diotenez, “planetaren etorkizuna eta giza biziraupena, ezin ditugu ordezkaritza politikoen esku utzi. Gizartearen ordua da. Erakundeak ingurumena suntsitzeko bidea alde batera uztera behartu behar ditugu”.

Horregatik, gazteei zein gazte eragileei maiatzaren 24an belaunaldi arteko mobilizazio handi bat egiteko proposamena luzatu die GuraSOsek, mezu honen bueltan; “plastikoari ez eta CO2ari ez. Erraustegia arazoa da, irtenbidea ez. Badago alternatiba. Eredua aldatuko dugu”.

Aurreratu dutenez, “ikasle eta gazte erakundeekin harremanetan jarri gara jada, eta aste honetan bertan harrema-



GuraSOsen esanetan, “planetaren etorkizuna eta giza biziraupena ezin ditugu ordezkaritza politikoen esku utzi”.

GURASOS

“Mingarria da ikustea erakundeek erakutsi duten gizarte mugimenduekiko eta batez ere herritarren lanarekiko mespretxua”

nek fruituak ematea espero dugu. Gauza bera egingo dugu gainerako gizarte erakundeekin”, iragarri du guraso taldeak. Argi diote, “herritarren ahotsa entzuteko ordua da, hots, etorkizuneko belaunaldien ahotsa”.

Gizarteari sarritan ukatu izan zaion ahotsa. GuraSOsek gogorarazi duenez, erakun-

deen legitimotasuna aldarrikatuz, “mundu guztiko ordezkaritza legitimoek gure planeta ingurumen amildegira eramaten ari dira”. Gipuzkoara etorrita, sarritan eskatu izan du baita GuraSOsek Foru Aldundiarekin biltzea; gaur arte ez dute baiezkorik jaso. “Mingarria da ikustea erakundeek erakutsi duten gizarte mugimenduekiko eta batez ere herritarren lanarekiko mespretxua”.

Honen aurrean, erakundeek hondakin kudeaketarekiko autokritika egin eta zuzentzea galdegiten du GuraSOsek, “berandu izan baino lehen”. Plastikoa oinarrituriko kontsumo ereduari bidea ematen segi eta

hondakin erraustetaren osasun zein ingurumen arriskua onartezintzat jotzen duen gizartearekin bat egiten ez duten erakundeek bide horretan jarraitzen badute, “galtzen aterako dira”.

Gauza bera egitea eskatzen diete erakundeek, “erraustegiari buruzko erabakiarekin ere”. Alde horretatik, Hitzartu prozesutik sortutako hondakin kudeaketa plan alternatiboa abian jartzeko dauden aukerak, orain arte hartu dituzten erabakiak aztertzea galdegiten die Batzar Nagusiei eta Foru Aldundiari, “kontuan izanik euren aterabidea plastikoa erretzean datzala eta plastikoa hori urte gutxiren buruan ezin-go dela erraustu”.

Gai honen inguruko eztabaida zabaldu eta alderdiek baina bereziki gizarteak esateko zer duen jakitea sustatu nahi du GuraSOsek. “Bizitza, osasuna eta ingurumenaren segurtasuna lehen lerroan jarri nahi ditugu, Barne Produktu Gordinaren aurretik”. Eztabaidaren erdigunean kokatu nahi dute, erraustegiak irudikatzen duen gobernantza, gizarte eta ekonomia eredia.

GuraSOS: “Intentsitate handiko hiru urte izan dira”

Hiru urte

Eredua aldatzeko aldarria rekin bat egitera deitu du honenbestez, egunotan hiru urte bete dituen GuraSOsek. “Intentsitate handiko hiru urte izan dira eta ahalegin betekoak”. Hiru urteotako jarduna, Gipuzkoari hondakin kudeaketarako alternatiba tekniko bat aurkeztuta borobildu du guraso taldeak, ekonomikoki bideragarria, erraustegia alboratu eta ingurumena zein gipuzkoarron

osasuna errespetatzen duena, iaz herritar, eragile eta adituek Hitzartu prozesuan landutakotik sortutako 2019-2030 plan alternatiboa. Foru agintarien esku dagoena egun.

Hitzartuk, erakunde kudeaketaren monopolioarekin hautsi duela nabarmendu du GuraSOsek. “Hitzartu ekimenak frogatu du gizarte antola daitekeela eta teknikoki konplexua den prozesua abiarazi dezakeela, eta praktikara

eramán arrakastaz eta kalitate tekniko handiz. Frogatu dute badirela parte hartze kanalak eta teknikak erakundeetakoek ez bezala funtzionatzen dutenak, eta administrazioek ez dakitela edo ez dituztela abian jarri nahi”.

GuraSOsek salatzen duenez, “erakundeek ekimen hau ezkutatu nahi izan dute, arrakasta bildu duelako”. Hitzartu planak etorkizunerako marrazturiko bidea jorratzeko borondate politikoa falta egotzi

diete erakundeek.

Ostiral honetan, elkarretaratzea Donostian

Erraustetaren Aurkako Mugimenduak eta Donostia Bizirik plataformak elkarretaratzea deitu dute ostiral honetako (maiatzak 17) Birziklatzearen Nazioarteko Egunean, Donostiako Alderdi Ederren 19:00etan, “gure hondakinik gabe ez daukate negozioirik, birziklatu! Ez elikatu erraustegia” aldarripean.

Gara egunkaria harpidetza premian

Gara egunkaria kinka larrian da 1998ko uztailean itxi zuten Egin egunkariaren 4,7 milioi euroko zorrari aurre egin beharko baitio. 10.000 harpide lortzea dute helburu ekaina bitarte, zatika ordaindu beharko duten zorrari aurre egingo badiote. Momentuz, 6.000 harpide baino gehiago lortu dituzte. Urrirako milioi bat euro ordaindu beharko dituzte eta horretarako 10.000 harpideen langa zeharkatzea ezinbestekoa izango zaie.

Harpidetza aukera ugari

Harpidetza mota dezente eskaintzen ditu GARAK. Interneten informazioa musutruk eskuratzetik, egunkaria egunero-egunero etxean jasotzeraino. Konpromiso mailaren arabera harpidetza proposamena da komunikabideak eskaintzen duena. Maila horren arabera, eskainiko dituz-



Urrirako 10.000 harpideren langa gainditzea ezinbestekoa izango zaie.

ten zerbitzuak eta hilean edo urtean ordaindu beharreko kopurua aldatu egingo da.

Argibide gehiago jasotzeko:

- naiz.eus atariko "Harpidetza" atalean.
- 943 316 999
- harpidetzak@gara.info
- Gararen egoitzan bestela, Portuetxe, 23-2a 20018 Donostia helbidean.
- Gara babesteko Usurbilen sortu den herritarren batzor-

deak mahai bat ipiniko du kalean datozen egunetan eta hor ere harpidetza egin ahal izango da.

Ekainaren 9an, elkartasun jaialdia

Bestalde, ekainaren 9an Anoetan elkartasun jaialdia antolatu dute. Sarrerak salgai jarri dituzte, lehenik Anoetan ospatzeko, gero aforoa handitzeko Illunbera lekuz aldatu eta gune honetarako sarrerak ere agortu dira.

Santueneko Gure Elkarteak 3 urte bete ditu



Ostiralarekin bat Santueneko Gure Elkarteak hiru urte bete zituen. Ospatzeko pintxopotea antolatu zuten eta Elektropapok gaualdea alaitu zuen taberna kanpoaldean. Giro bikaina ipini zuten Santuenean.

Arropa ondo zaintzen ikasteko tailerra

Udaberriko armairu aldaketa tailerra antolatu du Maitane Ormazabal Larzabalek. Txukuntzen taldearen izenean dihardu lanean eta TaPunturen egoitzan izango da maiatzaren 25ean, goizeko 10:00etan hasi eta 13:00ak arte. Hamaiketako ere izango da animatzen diren guztientzat. Guztia 30 euroren truk, aurretik izena emanda info@txukuntzen.eus. NOAA! berarekin izan da tailerraren gaineko xehetasun gehiago biltzeko.

Udaberriko armairu aldaketa tailerra antolatu duzu. Nori zuzenduta dago?

Orokorrean antolaketa eta ordenarekiko interesa duten guztiei dago zuzenduta.

Zein ikuspuntutatik landuko duzu gaia: arroparen kalitatearen inguruan edo antolaketa inguruan?

Ikuspuntu nagusia antolaketak da beti; ordena luzaroan mantentzeko aukera hobereena eta gure inguruarekin gustura bizitzeko baliagarria delako. Arroparen zaintzari garrantzia handia ematen diot, denboran kalitatea eta itxura mantendu dezan. Baita erabili beharreko antolaketa osagarriei, hauen erabilera egokia garrantzitsua baita arropa eta orokorrean guztia luzera ondo mantendu dadin.

Bizitza guztian kontutan izan diren hainbat gauza mahai gainean jartzen ditut tailerretan eta gaur egun erabiltzen diren beste hainbat teknika eta trikimailu erakutsi.



Maitane Ormazabal Larzabalek emango du ikastaroa. Maiatzaren 25ean, TaPunturen egoitzan.

Erosketetarako Hurbilagoren poltsa berrerabilgarriak eskuragarri

Usurbilen bizi, Usurbilen erosi mezua daramaten poltsa berrerabilgarriak banatuko ditu Hurbilago Elkar-teak, tokiko saltokietan erosketak egitearen truke. Poltsa hauek doan eskuratu ahalko dira.

Jaso baino lehen, dendariak galdetu egingo digu ba ote dugun bat, eta ez badugu doan emango zaigu. Usurbilgo merkataria eta ostalarien bilguneak abiarazitako ekimen berri honek bi helburu nagusi ditu; batetik noski, poltsak erabili eta bota beharrean, berrerabiltzea, eta honenbestez poltsa hauen erabilerahalik eta gehien zabaltzea. Eta bestetik, bizi garen lekuan bertan kontsumitzea, herrian erostea alegia.



Poltsa hauek doan eskuratu ahal izango dira Hurbilagoko saltokietan.

Muxurbil hasi da ikasturte amaierako emanaldia prestatzen



Maiatzaren 25ean Sutegin arituko dira eguerdiko 12:00etan.

Ikasturte honetan zehar landutakoa plazaratzeko ordua heldu zaie Muxurbil antzerki taldekoei. Asteotan

azken prestaketa lanetan den taldeak maiatzaren 25ean 12:00etan plazaratuko du Sutegiko auditorioan, ikasturtea

borobilduko duen antzezlanana. Gonbidapenak ordu erdi lehenago jarriko dituzte doan eskuragarri.

Zirimara ezagutzeko ate irekien jardunaldiak

Udarregi Ikastolak, Usurbilgo Udalak eta NOAA! Kultur Elkar-teak sustatuta, haur eta gaztetxoek eskolaz kanpoko jardueren eskaintza berri-tzen ari den Zirimara egitas-moa jendaurrean aurkezteko bilera sorta deitu dute egu-notarako. Hurrengo astean, Zirimara egunak barrutik eta zuzenean bizitzeko aukera izango da, antolatu diren ate irekien jardunaldiei esker. Maiatzaren 21ean eta 23an, 16:30-18:30 artean. Oiaro Kiroldegian abiatuko dira saiook.



Maiatzaren 21ean eta 23an, 16:30-18:30 artean Oiaro Kiroldegian.

USURBIL BATEGINIK



EAJ-PNV.EUS



MIREN JOSUNE URKOLA LARRARTE

USURBILgo ALKATEZARAKO HAUTAGAIA



EMAN BOTOA



EAJ
PNV



Agurtzane Solaberrieta Mesa

EH Bilduko hautagaia

NOAUA! Egitasmoei heldu aurretik, egizue azken legealdiaren balorazioa. Azken lau urteotako udal kudeaketaren inguruan zer nolako iritzia duzue?

Agurtzane Solaberrieta. Legealdi honetan “geroa da oraina” leloak gidatu du gure udal-jarduna. Baina, ez da eslogan hutsa izan, izan ere, legealdi honetan egin dugun lanari emandako zentzua ondo baino hobeto deskribatzen du: unean unekoari erantzunez, etorkizuneko Usurbil marrazten eta zutarrak sendotzen aritu gara. Lan-ildo askori heldu zaie, baina askotarikoak izanagatik ere, ez dira euren artean isolatuak. Guztien oinarrian herri ikuskera bat dago, iraganetik datorrena eta etorkizunean proiektatzen dena. Eta, nagusiki, azpimarratuko nuke ikuskera hori zehazten, partekatzen eta sozializatzen ahalegindu dela egungo udal-gobernua. Horren erakusgarri dira herritarrekin batera landu diren partaidetza-prozesuak eta horietatik eratorritako planak, besteak beste, honako hauek: HAPOa osatzeko prozesua, Kale Irekiak prozesuak utzitako Mugikortasun Plana, Txirikorda egitasmoa, Kalezarren adinekoentzat eraikiko den auzune berria, Zumarte Musika Eskola, Parekidetasun Plana, Usurbil 0.0 hondakinak kudeatzeko plangintza edota Elkar eta Gureak Usurbilera ekarri izana. Luze joko luke guztiak aipatzea.

Datozen lau urteei begira, zeintzuk izango dira zure alderdiaren lehentasunak?

Lehentasunak asko dira, baina inklusioaren gaiak bereziki kezkatzen nauen gaia da, giltzarria baita herri-kohesioari begira. Jon Maiari irakurri nion duela ez asko, badirela



“Inklusioarena bereziki kezkatzen nauen gaia da”, Agurtzane Solaberrieta EH Bilduko hautagaia azaldu digunez.

gutxienez bi Euskal Herria oraindik. Nik horixe bera esaten dut sarritan Usurbili buruz ere. Erabat euskal kulturatik kanpo eta euskalduntasunetik kanpo dagoen komunitate bat egon badagoela Usurbilen. Eta horiek ere gure herriaren parte dira. Banderizoak baztertu, eta ñabardurei eta parpaila finei jarri behar diegu arreta. Gaur egun migrazioa gai zentrala da mundu osoan, eta, derrigor, integrazioarako politika egokiak garatu behar ditugu. 60. hamarkadan bizi hobea go baten bila Espainiatik etorritako migrazio uholdearekin egindako kudeaketa txarra ezin dugu errepikatu. Oraindik ere garai hartako kudeaketa txarraren ondorioetan bizi gara. Ezin ditugu berriz ere bloke hermetikoak sortu; auzoak gentrifikatu, marjinatu. Usurbilen ere badugu horren arriskurik, esku hartzen ez badugu. Marmuak, estigmak, mehatxuak ahaztu, eta elkar ezagutzeko guneak sortu

behar ditugu. Eta dudarik ez dut euskara eta euskal kultura elkarbizitzaren muinean daudela. Mataza zirtzildu beste aukerarik ez dugu.

Krisi ekonomikoaren ondorioz, prekaritatea nagusitu egin da lan arloan. Horretaz gain, jubilatutak eta pentsiodunak hilabetero ari dira elkarretartzeak egiten. Kezka hauen aurrean, zer egin daiteke udaletxetik?

Krisiak, nagusiki, kolektibo ahulena kolpatu ditu, eta, dudarik gabe, horien artean gazteak, emakumeak edota pentsiodunak daude. Euskal pentsiodunek aldarrikatzen duten 1.080 euroko gutxieneko pentsioaren eskaera geure egiten dugu, bidezkoa eta beharrezkoa delako bizi baldintza duinak bermatzeko.

Berriki, Usurbilgo Udalak ikerketa bat egin du 70 urtetik gora izan eta bakarrik bizi diren herritarren egoera zein den aztertzeko. Asteotan jaso dira emaitzak eta informazio hori oso beharrezkoa da epe motzean bideratu beharreko zerbitzu edota ekimenei begira. Jakin badakit Azpeitian, EH-Bilduren udal-gobernuak, pentsioak 1.080 euro arte osatzeko laguntza berezia jarri duela abian legealdi honetan. Gure herriko pentsiodunen egoera zein den ezagutu eta, beharrezkoa balitz, halako ekimenen bat abiatzeko aukerak aztertuko ditugu.

Errauste-planta kezka iturri handi bat da usurbildar askorentzat. Azpiegitura horren beldur direnei zer esango zeniekete?

Usurbildar askoren kezka iturri da, eta neurea ere bada. Min ematen dit egunero parez pare dugun Zubietako mendi magal horretan ikusi behar izateak eta laster martxan jarriko dutela jakiteak. Usurbildarrok eta zubietarrok

“Nekez eraiki dezakegu herri kohesionatu bat, emakumeok libre ez bagara. Arazoari adarretatik heldu nahi diogu hurrengo legealdian”

rrok ez dugu halakorik merezi. Ez guk, eta, ez beste inork. Baina ezin dugu etsi. Eredu horren aurrean badagoe-lako beste eredu bat: Usurbil. Gure herria eredu da, bai Euskal Herrian, bai Euskal Herrikan kanpo ere. Usurbildarrok erakusten ari gara posible dela hondakinak beste modu jasangarriago batean kudeatzea, ingurumena eta osasunaren zaintza lehenetsiz eta, gainera, ekonomia zirkularra oinarri. Herri-kontzientzia eta herri-konpromiso horri esker, gaur egun, %85eko gaikako bilketa lortu dugu, eta Usurbil 0.0 programaren helburuei erreparatuz, are bikainagoak izango dira emaitzak. Ondo ari gara eta bide horretan sakondu behar dugu, munstro horri jatekorik ez bidaltzeko. Gure eta gu bezalako beste hainbat herriren emaitzak Gipuzkoa osora zabalduz gero, kitto, bukatuta legoke eztabaida.

Zergatik aurkeztu zara alkategai moduan?

Ez da erabaki erraza izan, inondik inora, baina nik badut lelo bat, Kate Milletek sortua, oso neurea dudana: “Pertsonala dena, politikoa ere bada”. Nire bizi jardunean mamitu den leloa eta praktika izan da, eta lelo horrek zipriztintzen du nire eguneroko jarduna. Nire bizitza garatzeko bidea. Pasioa. Politikoa eta pertsonala bereizi ezinezko adierak dira. Nolako betaurrekoa halako soa. Eta begirada horretatik jardun izan dut, lehenik, Euskal Herrian Euskaraz-en, gazte mugimenduan, Noauan, Berrian gero, ezker independentismoan liberatu, Gure Esku Dago dinamikan... Herri-gintzan, hitz batean. Beti konpromiso kolektiboari emana.

Eta ikuspegi berberarekin heltzen diot erronka berri honi ere. Herriarekiko, esan nahi baitut Usurbilekiko eta

Euskal Herriarekiko, dudan konpromisoan sakontzeko aukera ematen didalako. Ilusioz, gogoz eta erantzukizunez. Rosa Luxemburg-ek espetxetik idatzitako gutun bateko pasartea ekarri nahi dut gogora: “Ez dugu inoiz ahaztu behar gauza eder txikienarekin eta onenarekin ahalik eta gehien gozatzea”. Hain zuzen, horixe da nire asmoa.

Alkatetzara iritsiko bazina, zein izango litzateke hartuko zenukeen lehen neurria?

Alkatetzara iritsi eta berehala izango dira Santixabelak. Martxoaren 8an herriko emakumeok aukera izan genuen gure bizipenak partekatzeko, eta neska gazteen esanak oraindik buruan ditut zizelka: beldurra dute. Euren gorputzak eraso sexualen aurrean zaugarri ikusten dute, eta, ondorioz, espazio publikoa arriskutsutzat jotzen dute. Arazo hau festa eremuez haragokoa bada ere, herritar guztiei, eta nagusiki mutil gazte eta gizonezkoei egin nahi diet deia jarrerai eta maskulinitate ereduaz hausnartzera. Bada, ze gizarte ari gara eraikitzen gure herriko neskak ez badira euren herrian bertan libre sentitzen? Beldurra sistema patriarkalak emakumeon autonomia mugatzeko erabiltzen duen beste tresna bat da, eta esan beharrik ez dago askatasuna gure oinarri-oinarrizko eskubidea dela. Beraz, nekez eraiki dezakegu herri kohesionatu bat, emakumeok libre ez bagara. Arazoari parez pare begiratu eta adarretatik heldu nahi diogu hurrengo legealdian, herriko emakumeekin, eta nahi duten guztiekin batera, elkarlanean.

Beraz, izan, bizi, hautatu eta gozatu... LIBRE da nire leloa eta guztion praktika izatea nahiko nuke.

Labur-labur

Fikziozko serieak bogan dira. Baten bat aholkatuko al zeniguke? Ez, ez baitut ohiturarik ikusteko.

Zein izan da irakurri duzun azken liburua?

Carole Patemanen *Kontratu sexuala* (Elkar/Jakin). Eta, orain, berriaz ekin diot Harkaitz Canoren *Fakirren ahotza* (Susa) irakurtzeari.

Zein hiritara edota zein tokitara bueltatuko zinateke oporretan?

Suitzara, hango paraje ederrak sakonago ezagutzera. Eta Sahara ere itzultzeko gogoz nago, kasu honetan, nire alabekin.

Usurbilgo ospakizun guztien artean, zein da gustukoena duzuna?

Dudarik gabe, Sagardo Eguna.

Zerrendak irekiak balira, zure alderdikoa ez den zein politikari aukeratu zenuke?

Gure programaren oinarri eta printzipioekin bat egiten duten guztiek dituzte ateak irekiak gurean. Herri-batzarrak du azken hitza.

Udal zerrenda

EH Bildu

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa.
2. Beñat Larrañaga Urdampilleta.
3. Lur Etxeberria Gurrutxaga.
4. Jose Maria Iribar Zapirain.
5. Aroa Etxeburua Ugartemendia.
6. Luken Arkarazo Silva.
7. Oskar Santamaria Picabea.
8. Itziar Basterrika Unanue.
9. Ainhoa Arrozpide Landa.
10. Nerea Goizueta Garmendia.
11. M. Alazne Olaizola Iparragirre.
12. Ana Isabel Eizagirre Sagardia.
13. Xabier Arregi Iparragirre.

Ordezkoak:

1. Fatiméou Hamadi Rguebi.
2. Eugenio Noriega Diez.
3. Isidra Navarro Del Amo.
4. Xuban Zubiria Elexpe.



Josune Urkola Larrarte EAJ-PNVko hautagaia

NOAUA! Egitasmoei heldu aurretik, egizue azken legealdiaren balorazioa. Azken lau urteotako udal kudeaketaren inguruan zer nolako iritzia duzue?

Josune Urkola. Adibiderik onena aurrekontuen kudeaketan dugu. Aurrekontuak aurkezten direnean denak hitz politak dira. Gero, urtean zehar, aurrekontu horien exekuzioa gauzatzekoan, batez ere inbertsioen partidan, hiru laurden ez dira aurrera eramanez. Azken urteko inbertsioen partida % 21era ere ez da iritsi. Beraz % 79a kaxoi batean dago, geldirik, lo, proiektuekin batera. Honek asko arduratzen gaitu, ikusten baitugu inguruko herriek beste dinamismo bat dutela.

Bestalde, udaleko pleno askotan proiektuen nondik norakoak eztabaiatu eta partekatu beharrean, mozio politikoekin gaitzen dugu denbora eta ahal bada oposizioaren aurka jotzeko.

Udala ezker abertzalearen eskutik dago duela ia hiru hamarkada eta nabaritzen da. Usurbilek haize berria eta garbia behar du, aniztasuna kontuan izango duen haizea aurrera egiteko. Beste adibidea, bizikidetzaren arloan dugu. Gipuzkoako udalerririk bakarrenetakoa izango da arlo honetan ezer egin ez duena. Usurbilek merezi du denbora berriari ateak zabaltzea eta gure helburua da herriari behar duen bultzada ematea.

Datozen lau urteei begira, zeintzuk izango dira zure alderdiaren lehentasunak?

Gure lehentasuna pertsonak dira. Usurbil ororen duintasuna eta bizi kalitatea bermatzea. Hau egin ahal



"Usurbilek merezi du denbora berriari ateak zabaltzea eta gure helburua da herriari behar duen bultzada ematea", Josune Urkola EAJko hautagai nagusiak aitortu digunez.

izateko udalaren esku dauden zerbitzuak denengana iristeko konpromisoa hartzen dugu. Helburu horiek gauzatzeko ezinbestekoa da beste erakundeekin lankidetzaren akordioak egitea bai babes sistema bermatzeko eta baita ere Usurbilek behar dituen inbertsioak gauzatzeko.

Proiektu berrien atalean, gure herriko ekonomia zein kultura arloko eta gizarte eragileekin datozen urteetara begira ditugun erronkak partekatu ondoren, 10 puntutan banatzen diren proposamenak egin eta gure programan jaso ditugu. Besteak beste, kirol instalakuntza berria, auzoetako irisgarritasuna hobetzea, herriko sarrera eraberritzea,

hondakinen bilketa sistema berrikuztea edota eskola publikoren aldeko apustua berrestea.

Krisi ekonomikoaren ondorioz, prekaritatea nagusitu egin da lan arloan. Horretaz gain, jubilatuen eta pentsiodunen hilabeteko ari dira elkarretaratzeak egiten. Kezka hauen aurrean, zer egin daiteke udaletxetik?

Denok dakigu gai hauetan udalek ez dutela eskumenik. Hala ere konpromisoa hartzen dugu udaleko ateak zabalik izango ditugula edozein usurbildarren egoeraren berri entzuteko eta dagokion tokira bidertzeko.

“Buru-belarri helduko diot Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanak indartzeari eta bultzatzeari”

Errauste-planta kezka iturri handi bat da usurbildar askorentzat. Azpiegitura horren beldur direnei zer esango zeniekete?

Gaia politizatu egin da eta jendeari beldurra sartu zaio. Zubietako erakina gipuzkoarrok sortzen ditugun hondakinen tratamendurako zikloa itxiko duen azpiegitura da. Gipuzkoako Batzar Nagusiek, horrela erabakita, Europako lurralde aurreratueneke bere herri eta hirietan zaborrak kudeatzeko duten eredu bera jarraitu dute, hau da, hondakinak bereiztu, birziklatu, berrerabili eta errefusa punta puntako teknologia duen azpiegitura honetan tratatu energia sortuz. Europako hainbat hiriburuetan errauste-plantak badaude eta horrek bermatzen du prozeduraren arrisku eza. Dagoeneko Usurbilen badago airearen kalitatea neurtzen duen sistema eta gure helburua da neurketa horiek jarraitzea aire kalitatea mantentzeko eta hobetzeko.

Zergatik aurkeztu zara alkategai moduan?

Gaztetatik gustuko izan dut herri-gintza. Badira urte batzuk norberaren konpromisoa adieraziz, herritar guztien artean ausardiaz pausu bat aurrera ematea erabaki nuela, hasieran bigarren mailan aritu izan naiz jardun horietan, baina azken bi lege-gintzaldietan zinegotzia naiz udalean, eta herriarentzako lanerako gogoia areagotu dit.

Legealdi honetan berriro proposatu dit EAJ-PNVk zerrendaburu izatea eta ohore handia da niretzat Eusko Alderdi Jeltzalearen alkatezarako hautagaia izatea Usurbilen. Erronka handia daukat eskuartean, baina, neure taldearekin batera, lana ondo

baino hobeto egiteko konpromisoa hartzen dut.

Alkatetzara iritsiko bazina, zein izango litzateke hartuko zenukeen lehen neurria?

Buru-belarri helduko diot Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanak indartzeari eta bultzatzeari. Bi erakunde nagusi hauen parte hartzea ezinbestekoa da Usurbilek aurrez aurre epe motzean dituen erronkei irtenbidea emateko; hala nola herriko sarre- birmoldatzeari Aldundiaren eskutik eta eskola publikoa eraikitzeko Jaurlaritzarekin, horretarako eman behar diren urratsak gauzatzuz.

Labur-labur

Fikziozko serieak bogan dira. Baten bat aholkatuko al zeniguke?
Ez ditut serieak ikusten.

Zein izan da irakurri duzun azken liburua?

Lars Gustafsson idazlearen *Muerte de un apicultor* (Nordica).

Zein hiritara edota zein tokitara bueltatuko zinateke oporretan?
Parisera.

Usurbilgo ospakizun guztien artean, zein da gustukoena duzuna?
Sagardo Eguna.

Zerrendak irekiak balira, zure alderdikoa ez den zein politikari aukeratuko zenuke?
Uxue Barkos.

Udal zerrenda

EAJ-PNV

1. Josune Urkola Larrarte.
2. Mirari Azurmendi Sorazu.
3. Carlos Perez Fraisoli.
4. Andoni Atxega San Sebastian.
5. Lourdes Jauregiberri Goenaga.
6. Agurtzane Egibar Artola.
7. M. Jose Ibarгойen Lizarazu.
8. Juan Maria Zubeldia Arrieta.
9. Jose Maria Zubiria Eguzkiza.
10. Juan Gorostidi Echeverria.
11. Esteban Goenaga Otegi.
12. Miren Elisabet Ecenarro Ganzarain.
13. Joseba Iñaki Illaramendi Echabe.

Ordezkoak:

1. Fernando Arrieta Olasagasti.



Patxi Suarez Perez, PSE-EEko hautagaia: “Legealdiari egonkortasuna emango dion gobernu plural bat lortu nahi dugu”

NOAUA! Egitasmoei heldu aurretik, egizue azken legealdiaren balorazioa. Azken lau urteotako udal kudeaketaren inguruan zer nolako iritzia duzue? Patxi Suarez Perez. Ez alkateak ezta gobernu-taldeak ere ez dituzte kontuan hartu Usurbilgo Udaleko zinegotzi sozialistak aurkeztutako ha maika ekimenak. Legealdi honetan oso urrats gutxi eman dira bai gizarte-mailan bai Usurbilgo beharrezkoak diren azpiegituretan —adibidez, Eskola Publikoa—.

N. Datozen lau urteei begira, zeintzuk izango dira zure alderdiaren lehentasunak?

Usurbilen bizi diren eta lan egiten duten pertsonen bizi-kalitatea hobetuko duten gizarte-politikak.

Enplegua eta ekonomia-garapena, landa-turismoak ematen dituen ahalmen guztiekin.

Eskola publikoa eta euskararen erabilera sustatzea, adinagatik edo beste edozein arrazoiengatik hizkuntza ezagutzen ez dutenak baztertu gabe.

Udalaren komunikazioetan eta ekin-tzetan elebitasun erreala sustatzea.

N. Krisi ekonomikoaren ondorioz, prekaritatea nagusitu egin da lan arloan. Horretaz gain, jubilatuak eta pentsiodunak hilabetero ari dira elkarretartzeak egiten. Kezka hauen aurrean, zer egin daiteke udaletxetik?

Udalak kolektibo ahulentzako —gazteak, emakumeak eta 45 urtetik gorako iraupen luzeko langabeak— enpleguari lehentasuna eman behar dio, udal-aurrekontuaren ehuneko jakin bat enplegu-programetara bideratuz.

Jubilatuei eta pentsiodunei dago-kienez, beharrak dituztenei arreta berehala emango dieten gizarte-zerbitzu egokiak eskaini beharko dizkie Udalak; gainera, gizarte-larrialdiko laguntzak aurrekontuetan planifikatu beharko ditu eta zahartze aktibo



Patxi Suarez Perez, PSE-EEko hautagai nagusia.

baterako programak sustatu beharko ditu. Toledoko Itunean pentsioen igoera legez finkatzea babestu behar du Udalak.

N. Errauste-planta kezka iturri handi bat da usurbildar askorentzat. Azpiegitura horren beldur direnei zer esango zeniekete?

Erabateko bermea duen azpiegitura da. Biodonostia duela ia bi urte hasi eta 2019ko abenduan amaituko duen azterketa epidemiologikoa egiten ari da, ingurumen-iraunkortasuneko eta osasun publikoko irizpideen aplikazioa bermatzen dela ziurtatzeko.

N. Zergatik aurkeztu zara alkategi moduan?

Usurbil herri oparagoa, irekiagoa eta pluralagoa egiteko konpromiso sozial eta politikoa duen hautagaitza sozialista baten buru naizelako.

N. Alkatetzara iritsiko bazina, zein izango litzateke hartuko zenukeen lehen neurria?

Enplegua, eta gizarte-mailako eta garapen ekonomikoko politikak lehenetsiko dituen gobernu-programa batekin, legealdiari egonkortasuna emango dion gobernu plural bat lortzea.

Labur-labur

Fikziozko serieak bogan dira. Baten bat aholkatuko al zeniguke?

“El cuento de la criada”. Gaur egun beharrezko distopia baita, gizarte-orkatu bat lortzeko, eta ez bueltatzeko ibilitako bidera. Zalantzarik gabe.

Zein izan da irakurri duzun azken liburua?

David Torresen *Punto de fisión* (Algaida) txoruen istorio bat, metaliteratura pixka batekin, oso ondo pasatu dut liburu honekin.

Zein hiritara edota zein tokitara bueltatuko zinateke oporretan?

Izugarri gustuko nuke Portugalera joatea, batez ere, Algarvera, nire txikitako oporrak baitziren, eta oroitzapen ederrak datozkit.

Usurbilgo ospakizun guztien artean, zein da gustukoena duzuna?

Santixabel jaia oso polita dela iruditzen zait, oso herrikoa delako eta adin guztietako jendearentzako ekintzak antolatzen direlako.

Zerrendak irekiak balira, zure alderdikoa ez den zein politikari aukeratu zenuke?

Ideologia aurrerakoia izango lukeen, gobernu plurala sustatuko lukeen eta Euskadin jasan dugun indarkeria terroristarantz gaitzesteko arazorik izango ez lukeen norbait.

Udal zerrenda

PSE-EE/PSOE

1. Patxi Suarez Perez.
2. Fermin Orue-Echevarria Iturri.
3. Maria Arrate Irazabal Oyarzabal.
4. Julio Jaen Moral.
5. Antonia Novillo Ruiz.
6. Mauricio Lorenzo De La Torre.
7. Noemi Puertas Gonzalez.
8. Kristian Garnateo Aranda.
9. Esperanza Quicios Martinez.
10. Angel Morales Rojo.
11. Jesus Novillo Ruiz.
12. Isabel Garcia Martin.
13. Naroa Greño Rivadulla.



Pascual Plaza Romo, PPko hautagaia: “Udal baliabideen banaketa justuago bat bultzatu nahi dugu”

NOAUA! Egitasmoei heldu aurretik, egizue azken legealdiaren balorazioa. Azken lau urteotako udal kudeaketaren inguruan zer nolako iritzia duzue? (*Galdera hau erantzun gabe utzi du Alderdi Popularrako hautagaiak*).

N. Datozen lau urteei begira, zeintzuk izango dira zure alderdiaren lehentasunak?

Pascual Plaza Romo. 45 urtetik gorako adinduak lan merkatura batu daitezten saiatu, arlo horretan arazo gehien duen kolektiboa delako. Adinduei bitarteko gehiago eskaini, euren etxeetan bizitzen jarrai dezaten eta bitarteko horiei esker zainduak izan daitezten. Herriko komertzioa ez dadila atzean geratu, zeren gero eta gehiago dira ixtera behartuak sentitzen diren saltokiak. Eta gizon zein emakumeen arteko berdintasuna helburu bat baino gehiago izan dadila.

N. Krisi ekonomikoaren ondorioz, prekaritatea nagusitu egin da lan arloan. Horretaz gain, jubilatutak eta pentsiodunak hilabetero ari dira elkarretartzeak egiten. Kezka hauen aurrean, zer egin daiteke udaletxetik?

Familiak laguntzea, seme-alaben zaintzarengatik laguntzak bideratuz, edota udal mailako zergetan abantaila fiskalak eskainiz.

Enpresen txertaketa erraztu nahi dugu: lur sailak edo fiskalitate egokia eskaini, epe luzeko langabetuak eta emakumeak kontratatzearen truke.

Nagusien kasuan, laguntza ekonomikoak eskaini pentsio txikiak dituztenei, etxeko gastuei aurre egiteko zailtasunak dituztelako. Eta honi lotuta udal zerga batzuk daudenez, ondo legoke zerga horiek gutxitzea edota adindu horiei nolabaiteko abantailak aplikatzea bestela.

N. Errauste-planta kezka iturri handi bat da usurbildar askorentzat. Azpiegi-



Pascual Plaza Romo da hautagai nagusia. Irudian, alderdi popularraren logoa.

tura horren beldur direnei zer esango zeniekete?

Errausketa-plantak martxan dituzten hirietako adituak izan ditugu Batzar Nagusietan. Eraikitze lanak oztopatu asmoz beldurrarekin jokatu duten horien aurrean, arriskurik ez dutela adierazi digute aditu horiek.

Beste kontu bat aipatu nahi dugu. Ez dugu errausketa-plantaren tamainarekin bat egiten. Gaindimentsionatuta dago, denborak demostratuko duen bezala. Uste dugu Bizkaiak eskuza-baltasun falta ikaragarria erakutsi duela. Ez ditu bere errekursoak gurekin partekatu nahi izan, tartean, Zabalgari biko errausketa-plantaren erabilera.

Eusko Jaurlaritzak ere enpatia falta erakutsi du Gipuzkoarekiko. Foru Aldundiaz zer esan, Bizkaiak eta Eusko Jaurlaritzak azpiratua izan da.

N. Zergatik aurkeztu zara alkategai moduan?

Usurbildarren bizimodua hobetu nahi dudalako eta udal baliabideen banaketa justuago bat nahi dudalako. Eta azkenik, herritar guztiak berdin tratatuak izan daitezten.

N. Alkatezara iritsiko bazina, zein izango litzateke hartuko zenukeen lehen neurria?

Auditoria bat, udalaren kontuen berri izateko.

Labur-labur

Fikziozko serieak bogan dira. Baten bat aholkatuko al zeniguke?
“The good doctor”. Sendagile autistaren papera betetzen duen aktoreak lan bikaina egiten du seriean.

Zein izan da irakurri duzun azken liburua?

Joël Dicker idazlearen *La desaparición de Stephanie Mailer* (Alfaguara).

Zein hiritara edota zein tokitara bueltatuko zinateke oportretan?

Espainia hegoaldeko eguzki eta hondartzadun edozein tokira.

Usurbilgo ospakizun guztien artean, zein da gustukoena duzuna?

-

Zerrendak irekiak balira, zure alderdikoa ez den zein politikari aukeratuko zenuke?

Josu Jon Imaz.

Udal zerrenda

PP

1. Pascual Plaza Romo.
2. Antonio Lopez Elvira.
3. Emilio Julian Rodriguez Alcantud.
4. Pilar Valcarce Bardón.
5. Maria Dolores Quiralte Carmona.
6. Jaime Perales Martinez.
7. Ignacio Alberto Cuellar De La Torre.
8. Maria Enriqueta Patau Cremades.
9. Isidoro Angel Luis Severiano Sebastian.
10. Enriqueta Rodriguez Portoles.
11. Francisco Jose Fernandez Rey.
12. Rosalia Rodriguez De Barrio.
13. Amalia Rosales Marquez De Prado.

Ordezkoa:

1. Maria Sanchez Andrada.



Luismari Ormaetxea Santsiñena

Aulki Zuriak-eko hautagaia

NOAUA! Egitasmoei heldu aurretik, egizue azken legegaldaren balorazioa. Azken lau urteotako udal kudeaketaren inguruan zer nolako iritzia duzue?

Luismari Ormaetxea. Legegaldiaren hasieran, era ponpoxoan, bere asmoak aurkeztu zituen gobernuak. Hogeitabat asmo edo proiektu, batzuk jada eginak zeudenak, gainera. Ondoren, udal teknokraziari funtzionatzen utzi zaio; gehienez, kanpo eskakizunei eta udalaz kanpoko agentei erantzunez joan da; hala nola, hirigintza promotoreen egin nahiak, edota enpresa multzoen garapen asmoei erantzunez. Azpimarratzekoa da bi adibide nagusi hauek ez zeudela gobernuaren legegaldi programan.

Hala eta guztiz, bada gai bat bereziki jorratu dutena: komunikazio arloa. Ikusi besterik ez dago komunikazio teknikari bat kontratatu zuela alkateak: Agurtzane Solaberrieta. Gobernuaren hutsune eta gabeziak betetzen lan ugari izan du.

Solaberrieta EH Bilduren alkategaia izatea ez da kasualitate hutsa, beraz, eta aurreratzen digu hurrengo legegaldia nolakoa izan litekeen: propagandaren legegaldia.

Datozen lau urteei begira, zeintzuk izango dira zure alderdiaren lehentasunak?

Lehentasun argi eta bakarra izango dugu: udal gobernuko alderdietan ordezkatuak sentitzen ez diren herritarren, eta oposizio formalean leudekeen alderdietan islatuak ez dauden herritarren ordezkariak izatea.

Krisi ekonomikoaren ondorioz, prekariedade nagusitu egin da lan



Luismari Ormaetxea Aulki Zuriak-eko hautagaia adierazi digunez, "ordezkatuak sentitzen ez diren herritarrei bozka aukera bat emateko asmoz aurkeztu gara".

arloan. Horretaz gain, jubilatuek eta pentsiodunak hilabetero ari dira elkarretaratzeak egiten. Kezka hauen aurrean, zer egin daiteke udaletxetik?

Lan esparruko prekariedade krisi finantzarioaren aurrekoa da, ez dezagun ahaztu. Pentsiodunen egoera ere ez da berria. Berria dena da duten antolaketa eta protesta gaitasuna. Zehaztasun hauek eginik, azpimarratu behar da udal txiki baten eragin gaitasuna oso mugatua dela: egiten dituen kontratazioetan prekariedadearen aurkako baldintzak ezartzea; produktu finantzarioak erostean zorrotzago neurtu baldintzak, eta zuhurtziaz negoziatu; larritasuneko behar sozialei aurre egiteko, partida ekonomiko handiagoak finkatu; eta bereziki, udalak

duen zorra guztiz desagerrarazi, era horretan, krisi finantzarioa sortu zuten agenteetatik libreago biziko baita herria. Uste dut aurkeztu garen alderdi guztiok bat etorriko garaela analisi honetan.

Errauste-planta kezka iturri handi bat da usurbildar askorentzat. Azpiegitura horren beldur direnei zer esango zeniekete?

Militarismoaren aurrean intsumisioa bultzatu genuenok azken muturre-raino eramanez genuen gaia. Desobediencia epaileen aurrera eramanez gintuen gutako asko. Altuna alkate jauna kargua betetzeko gaitasunik gabe utzi zuten haren garaian, armadari soldaduska egiteko zeuden gizonezkoen errolda ez emateagatik. Ez dugu antzeko jarrera tinkorik ezagutu azken aldi honetan gai honetik kezkatuak daudenen artean. Are gehiago, hainbat eta hainbat herritarrek lan egingo dute azpiegitura horretan. Zergatik ez da bultzatu "lan-intsumisioa"? Itxurakeriaz bizitzeko prest?

Zergatik aurkeztu zara alkategai moduan?

Zerrenda baten lehena naiz, talde baten lehena. Azken legegaldian hiru alderdik osatu dute udalbaitza; beraz, aniztasun handiegirik ez da izan. Herritar ugari ez dira ordezkatuak sentitu. Gure taldea egoera hori zuzentzeko aurkeztu da. Ordezkatuak sentitzen ez diren herritarrei bozka aukera bat emateko asmoz aurkeztu gara.

Herritar ugari dago, azken lau urteetan jasan dugun gobernatzeko erarekin eta egin den oposizio erarekin, ezinezona eta desadostasuna azaleratzeko asmoz.

“Gure taldearen helburua ordezkatuak sentitzen ez direnen ordezkari izatea da; beraz, zinegotzi hautatu moduan egingo dudan lehen protesta ekimena zinegotzi kargua ez hartzea izango da”

Alkatetzara iritsiko bazina, zein izango litzateke hartuko zenukeen lehen neurria?

Izan gaitzen errealistak, hori ez da gertatuko. Ez, behintzat,

hauteskunde hauetan. Gure taldearen helburua ordezkatuak sentitzen ez direnen ordezkari izatea da; beraz, zinegotzi hautatu moduan egingo dudan le-

hen protesta ekimena zinegotzi kargua ez hartzea izango da.

Ondoren, oposizio ardura-tsua egitea izango dugu lehen-tasun.

Labur-labur

Fikziozko serieak bogan dira. Baten bat aholkatuko al zeniguke?

Ez naiz fikziozko serie zalea; halere, aitortu beharra dut “El conquistador del Pacífico”-ko programaren jarraitzaile sutsua naizela.

Zein izan da irakurri duzun azken liburua?

Liburu bat baino gehiago batera irakurtzeko joera dut. Azken aldian bi ditut esku artean: Christian Felber-en *La economía del bien común* (Deusto Ed.) eta Edgar Allan Poe-ren *Misteriozko ipuinak* (Elkar).

Zein hiritara edota zein tokitara bueltatuko zinateke oporretan?

Oportora. Azken aldian oso denbora gutxi izan nuen hura ezagutzeko, eta leku interesgarri ugari ezagutu gabe geratu zitzaizkidan. Hori dute hiri handiek, leku gehiegi ezagutzeko.

Usurbilgo ospakizun guztien artean, zein da gustukoena duzuna?

Dudarik gabe, abuztuaren 16an ospatzen den Roke deunaren eguna. Kalezar auzoan ospatzen da. Jai egun xumea da, bertakoentzat bereziki antolatzen dena, eta herritar asko oporretan

herritik kanpo dabiltzanez, burrunba handirik gabe ospatzen duguna; gainera, eduki soziala duen jatorri historikoa du. Kondairak dioenez, Roke deuna, Erdi Aroan, erromes zihoala izurri beltzaz kutsatuta zegoen hiri batean geratu zen, gaitza zutenak zainduz; horretan ari zela gaitzaz kutsatuta hil zen. Kalezarren “ospitale” deritzon etxea dago, done Jakue bidearen adar baten arrastoa, eta dirudienez, bertan zaintzen zituzten gaixotzen ziren erromesak. Etxe horren alboan zahar-egoitza berria eraikitzekoa da. Gustatuko litzaidake egoitza horrek iraganarekin lotura izatea. Agian, egoitzaren izena berak jaso lezake historia hau guztia.

Zerrendak irekiak balira, zure alderdikoa ez den zein politikari aukeratuko zenuke?

Zalantzarik gabe bozka ematera joango nintzateke. Egintza zibikoa da, ondorioz, etxean geratzea ez dago nire aukeren artean. Aulki Zuriak alderdia beste aukerarik ez dutenen alderdia da, hau da, era arduratsuan bozkatzera joaten denena, baina, aukerarik gabe aurkitzean, zuriz bozkatzeko dutenena, ondorioz, neuk ere zuriz bozkatzeko nuke.

Udal-zerrenda

Aulki Zuriak

1. Luis Maria Ormaetxea Santsiñena*.
2. Maria Cruz Pascual Sanchez.
3. Pedro Maria Ibarra Iraculi*.
4. Esther De Juan Mangas*.
5. Aitor Picabea Lamuedra*.
6. Maria Pilar Casabona Blasco*.
7. Antonio Picabea Sarasola*.
8. Elizabeth Martinez Sanchez*.
9. Andoni Picabea Lamuedra*.
10. Maria Asuncion Lopez Miguel*.
11. Jose Manuel Roteta Echeverria*.
12. Lucia Moreno Diez*.
13. Antonio Garcia Castellon*.

* Independente moduan.

Posta bidez bozkatzeko epea bi egunez luzatu dute

Espainiako Gorteetako apirilaren 28ko hauteskundeetan gertatu moduan, hilaren 26ko udal, foru eta Europako hauteskundeetan ere gauza bera egin dute; bi egunez, maiatzaren 24ra arte luzatu dute posta bidez bozkatzeko epea:

- Maiatzaren 16ra arte: posta bidez bozkatzeko eskaera egitea Correosen.
- Maiatzaren 19ra arte: posta bidez bozkatzeko eskatu dutenei dokumentazioa helaraztea.
- Maiatzaren 24ra arte: posta bidezko bozka bidaltzea Correos bidez.



Maiatzaren 24ra arte luzatu dute posta bidez bozkatzeko epea.

Bost hautagai Zubietako Herri Batzarreko hauteskundeetan

Bostetik bi Usurbil aldetik, gainerako hirurak Donostia aldetik aurkeztu dira. Maiatzaren 9an eman zituzten ezagutzera. Hautagaien artean ez dago legealdi honetan aritu den batzarkiderik. Berriak dira bostak:

Usurbil aldeko hautagaiak

- Urtzi Alberdi Zulaika.
- Haritz Arrizabalaga Garmendia.

Donostia aldeko hautagaiak


- Jon Andoni Arroyo Arozena.
- Eneko Izagirre Castresana.
- Ignacio Izagirre Zuloaga.

Aurrez bozka emateko aukera

Hautagaiak aldarrikatzearekin batera, maiatzaren 7an egin zuten hilaren 26an 9:00-20:00 artean Alamandegia etxean ospatuko den bozketa egunerako mahaikideen zozketa ere. Usurbilgo Udalak mahaiko bi bokalak eta haien bi ordezkariak

hautatu zituen, Donostiakoak lehendakaria eta bere bi ordezkioak. 9 kide guztira. Honez gero, jakinarazpena jasoko zuten hautatuak izan diren zubietarrek.

Bozkatzeko garaia dator orain. Aurrez botoa emateko aukera izango dute zubietarrek maiatzaren 20an dagoen udaletxean; batzuk Donostiakoan, besteek Usurbilgo Udaleko idazkaritzan, 8:00-14:30 artean.



Mahaikideentzako bilera

Maiatzaren 26ko udal, foru eta Europako hauteskunde egunez osatuko diren botoa emateko mahaientzako 72 herritar hautatu ziren, apirilaren 30ean egin zen osoko ohiko bilkuran. Mahaikide izatea egokitu zaizuenentzako, ohi bezala, informazio bilera deitu da udaletxean, maiatzaren 23an, 19:30etan. Mahaikideok jaso duzuen eskuliburua bilerara eramatea eskatzen da.

Alderdien hauteskundeotako programak

Astekari honetan ikusi duzuen, udal hauteskundeetara aurkeztu diren alderdi politikoetako hautagai zerrendako buruak elkarrizketatu ditu NOAUA!k. Astebete barru, eragile politiko guztion hauteskunde programen nondik norakoan berri emango dizuegu.



#ElkarrekinBuruJabe

usurbilehbildu.home.blog



Zurekin **USURBIL** gara

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa, 2. Beñat Larrañaga Urdanpilleta, 3. Lur Etxeberria Gurrutxaga, 4. Joxe Mari Iribar Zapirain, 5. Aroa Etxaburua Ugartemendia, 6. Luken Arkarazo Silva, 7. Oxkar Santamaria Pikabea, 8. Itziar Basterrika Unanue, 9. Ainhoa Arrozpide Landa, 10. Nerea Goizueta Garmendia, 11. Alazne Olaizola Iparragirre, 12. Ana Eizagirre Sagardia, 13. Xabier Arregi Iparragirre, 14. Fatimetu Hamadi Rgubi, 15. Eugenio Noriega Diez, 16. Ixidra Navarro del Amo



maiatzak 18 Artzabalgo berdegunean, 18:00-20:00

Herriko sortzaileen emanaldiak
Umeentzako txokoak eta jolasak
Pintxoak eta edatekoak
Hautagaien zinta jokoa

...eta bestelako sorpresak!

herri/auzo bira

TXOKOALDE
Maiatzak 20, astelehena
19:00 Erroizpe aurreko plazan

KALEZAR
Maiatzak 21, asteartea
19:00 Peña Pagola elkar-
tearen aurreko plaza

SANTUENEA
Maiatzak 21, asteartea
19:00 Plazan

ZUBIETA
Maiatzak 22, asteazkena
19:00 Alamandegia aurrean

AGINAGA
Maiatzak 23, osteguna
19:00 Eliza Zahar aurrean

Baserritarren Eguna, iruditan



Baserritarren Egunean irudi ugari batu genituen. Argazki gehiago esteka honetan topatuko dituzue: noaia.eus/galeriak/

Tximeleta taldekoek ikuskizun aparta eskaini zuten



Asteburuko jardunaldiari buruzko argazki gehiago web orrian topatuko dituzue, noaua.eus/galeriak/ estekan.

Pagazpek aurrera egin du Berria Txapelketan

Pagazpe Elkartek sendo ekin egin du Berria Txapelketari. Aurreko igandean Atarrabiako Paz Ziganda Elkartearen aurkako kanporaketa irabazi eta gero, Azpeitiko Ilunpe elkartearen aurka lehiatu beharko dute orain.

Paz Zigandaren aurkako norgehiagokan, 2-1 nagusitu ziren Pagazpeko pilotariak. Haritz Urdanpilletak adierazi digunez, hauek izan ziren Usurbilgo taldea ordezkatu zuten pilotariak: kadeteetan Oier Garaiar eta

Unai Albeniz; jubeniletan Imanol Galarraga eta Aimar Iruretagoiena; seniorretan, Enrike Huizi eta Hodei Exposito.

Kadeteetan, 22-7ko emaitzarekin galdu zuen Pagazpek.

Jubeniletan aldiz, Pagazpek 22-3 irabazi zion Atarrabiako bikoteari.

Senior mailako partidaren argitu zen kanporaketa. "Hodei Expositok eta Enrike Huizi bikain batek (maisutasuna erakutsi zuen aurreko koadroetan) garaipen bikaina lortu zuten, 22-10".



Atarrabiako taldeari irabazi ondoren, Azpeitiko izango da hurrengo aurkaria.

BAZKIDEEN TXOKOA




**Maiatzak 24, ostirala,
20.00tan Sutegin**

noaua! euskararen aterpe

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu maiatzaren 8an

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus



Antolatzaile

AIURRI

Laguntzaile



MAIATZAK 24, OSTIRALA

17:30 **URNIETA**

Egape ikastolako jolastoki estalia

AURRE SALMENTA:

HERNANI

• Leokadisti. Urbieta kalea, 6.

URNIETA

• 2KN okindegia. M.Yurramendi 2,
udaletxearen ondoan.

ANDOAIN

• Aiurri. Arantzibia plaza.

• Ernaitza liburudenda. Zumea kalea.

SALMENTA EGUNEAN BERTAN:

16:30. Egape ikastolako jolastokiaren atarian.

7€

“Gure borroka ez da hemen bukatu”

Ingemarreko langileak kale-ratu eta Atalluko lantegia itxiera bidean jartzeko Galizian hartutako erabakiak erantzun irmoa izan zuen maiatzaren 10ean. Aipatu plantako langileek deituta, enpresa ez ixteko exijitu eta borrokan segetzeko duten konpromisoa berresteko manifestazioa egin zuten Usurbilgo kaleetan zehar.

Babes zabala jaso zuen mobilizazioak. Langileak lehen leerroan, atzetik zituzten hainbat senide eta lagun, baita azken hamarkada luze honetan kale-ratu dituzten hainbat langile ere, herritar, eta baita udal gobernu taldeko ordezkariekin batera.

Udaletxe paretik abiatutako mobilizazioak Usurbil erdiguneko kale nagusiak zeharkatu zituen Mikel Laboa plazaraino. Amaieran, pankartako leloak zioena ozen adierazi zuten. Ingemar ez ixtea exijitzearekin batera, azken hamar urteotan egin duten moduan, borrokan segiko dutela iragarri zuten, manifestarien txalo artean.

Galizian adosturiko erabakia

“Gure borroka ez da hemen amaitu”, argi utzi zuten Ingemarreko langileek, manifestazio amaierako agerraldian. Auzitegi Nazionalera joko dute, aurkeztu



Babes zabala jaso zuen Ingemarreko langileek deituriko mobilizazioak.

INGEMARREKO LANGILEAK

Auzitegi Nazionalera joko dute aurkeztu zaien enplegu erregulazio-espeditentea iruzurra dela salatzen. “Ahaleginduko gara lotsagabe horiek agerian uzten”

zaien enplegu erregulazio-espeditentea iruzurra delakoan “eta ahaleginduko gara lotsagabe horiek agerian uzten” zioten.

Galiziako enpresako zuzendaritzari buruz eta Galizian bertan egon eta Usurbilen ordezkariarik ez duten UGT eta CIG sindikatuei buruz ari ziren. Bi aldeok, martxoan aurkeztu zuten enplegu erregulazio espeditentea gauzatu baitute, Atalluko lantegiko langileak kalera-tu eta lantegia bera ixtea adostu

dute. Langileek nabarmentzen zuten, aipatu espeditentea Madrilan izapidetu dute eta Negoziazio Batzordeko kide gehienak Lugoko Ingemarga S.A.-ko Enpresa Batzordekoak dira. Alegia, erabaki gunea eta Usurbilgo langileak kaleratzeko erabakia herritik kanpo, urrun hartu da. Ingemar taldeko enpresako zuzendaritza halako erregulazio-espeditente batez baliatu dela adierazi zuten, Usurbilgo plantakoak kaleratzeko, “beste lantegi batzuetako langileei oso neurri mugatua eragin baitie”. Are gehiago, gogorazi dute, “xantaia baten azken jaisaileak gara”, Ingemar taldeko zuzendaritzak lantegi bateko langileen esku utzi baitu beste lantegi bateko “kaleratzeak eta itxiera baimentzea, haiekin zerikusirik ez badu ere”.

200etik 37 langilerainoko murrizketa

30 langile kaleratzea eta Ingemar taldeko sorrerako 70 urteko enpresa itxiera bidean jartzea erabaki dute. Duela hamar urte Usurbilgo lantegiak 200 langile zituen, egun 37. Ulertezintzat jotzen dute halako erabaki bat hartzea. “Duela hiru hilabete bideragarritasun plan bat aurkeztu zen, eta haren arabera enpresa honen errentagarritasuna argi eta garbi ikusi zen”.

Aipatu bi sindikatuei eta Lu-

goko lantegiko langileei zuzen galdetu zieten Usurbilgo plantakoek. “Galdetu nahi diegu ea harro sentitzen diren lantegi baten itxieran eta horren ondoriozko kaleratzeetan parte hartu izanagatik. Jokabide hori nola azalduko diete beren familiei? Edo, bestela, zergatik ez datoz hona, azalpen hori gure familiei zuzenean ematera?”.

Tinko erantzuteko deia

Oso bestelako mezua helarazi

zieten aurrean zituzten manifestariari. Eskerrak helarazi zituzten “azken urteotan gurekin izandako elkertasunagatik. Sostengu hori izan gabe, nekez eutsiko geniokeen borrokari orain arte”. Udalarari ere esker ona adierazi zioten hamarkada honetan eskainitako laguntzagatik eta erne egoteko deia egin zieten, “Usurbilgo lantegiko lursaila edo langileekin negoziatio egiteko asmoa antzemango bultzatzen, tinko erantzuteko”.

Emisioen kontrola urria izango dela salatu dute

“Bilketa eraginkorra bai, errausketarik ez!” pankartaren atzetik ehunka manifestari batu ziren larunbatean Lasarte-Orian. Aire Garbia plataformak bi helburu zituen: hondakinen bilketa eraginkorra sustatu eta errausketa salatu. Usurbilgo Errausketaren Aurkako Mugimenduko kideek eta GuraSOSeK bat egin zuten manifestazioarekin.

Osasuna arriskuan

Aire Garbiaren esanetan, “erraustegien inguruan minbizia-arriskua handiago da. Arnas aparatuko gaitz gehiago daude eta ugaltze arazo gehiago”. Horregatik, Lasarte-Oriako plataforma honen ustez, “erraustegia bultzatzen duten alderdiek, PSeK eta EAJK, herritarren osasuna arriskuan jarri nahi dute”.

Emisioen kontrola urria izango dela jakin dute

Aire Garbia taldeak manifestazioaren amaieran adierazi zuenez, “dioxina, furano eta metal astun arriskutsuen emisioen kontrola urtean bitan bakarrik egin nahi dutela jakin dugu. Nahiz eta jakin horrela ezin dela inondik inora isurketa toxikoen maila kontrolatu. Zentzurik gabeko arduragabekeria honekin lehenbailehen bukatu behar dugu. Ez dezagun utzi gutxi batzuen negozioen mesedetan herritarren osasuna arriskuan jartzea. Bilketa eraginkorra bai errausketarik ez!”, oihukatuz amaitu zen antolatzaileen agerraldia.



Ehunka lagun batu ziren larunbatean Lasarte-Orian.

Udajolasen izen emateko garaia

Zabalik da eta hala segiko du maiatzaren 23ra arte, NOAUA! Kultur Elkartek eta Usurbilgo Udalak antolatutako Udajolaseko izen emateak. Ordutegi honetan, NOAUA!ren bulegoan, Bordaberri 3an: astelehenetik ostiralera, 10:00-11:00 artean eta 16:30-18:30 artean.

Izen ematerakoan, izen emate orria egoki beteta eta ordainketa egin dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da, gizarte segurantzako txartelaren kopia-rekin batera. 84 euroko prezioa izango du Udajolasek, 68 euro familia ugariak. Kasuotan ordea, Familia Ugariaren Txartela edo Familia Liburuaren kopia ekarri beharko da.

Eta aipatu moduan, ordainagiria, haurren edo haurren izen abizenak egoki adierazita. Horretarako aurrez ordainketa egin beharko da Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan: 3035 0140 34 1400025811.

Usurbilen erroldaturiko 4-12 urte arteko 200 haur eta gaztetxoentzako lekua egongo da, uztailearen 3tik 30era (9:30-13:30) izango diren udaleku irekietan.



NOAUA!n egin behar da izen-ematea. Astelehenetik ostiralera, 10:00-11:00 artean eta 16:30-18:30 artean. Maiatzaren 23an amaituko da izen-ematea.

UDAJOLAS

“Izen ematerakoan, izen emate orria egoki beteta eta ordainketa egin dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da, gizarte segurantzako txartelaren kopiarekin batera”

Behin izena emanda, ez da dirurik itzuliko

Kontuan hartu beharreko zenbait ohar segidan; orduz eta epez kanpoko izen ematerik ez da onartuko. Behin izena emanda, ez da dirurik itzuliko. Bestetik, izen emate

orriak Udarregi Ikastolan eta Zubietan zein Aginagako Eskoletan banatuko dira. Izen emate orria eskuratzen ez baduzu, NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan eskuratu ahalko duzu.

Kontuan hartu beharreko bi hitzordu

Udajolaseko izen emate epea ixten den egunean, maiatzaren 23an jakinaraziko dugu zenbat izen emate izan diren. Udajolasen gaineko argibideak berriz, ekainaren 13an (osteguna) 17:00etan Sutegiko auditorioan deitu dugun guraso bileran eskainiko dira.

Udajolaserako lan poltsa deialdia

Zuzendari eta begiraleen lan poltsa osatu nahi dugu Udajolasen. Lan poltsa deialdi honetan interesa dutenek kurrikulumak NOAUA! Kultur Elkartera bidali behar dituzte, bideotatik: emailz elkartea@noaua.eus helbidera edo Bordaberri 3an dugun egoitzara. Kontuan izan, begirale zein zuzendarien lan poltsa honetarako bilatzen dugun profila: batetik, bi hilabeteko esperientzia izatea eskatzen da; begirale eta zuzendari titulua izatea; EGA edo

baliokidea den agiria; eta sexu delitua egiteagatiko aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria. Usurbildarrek izango dute lehentasuna

NOAUA!ko administrari eta dinamizatzaile lanetarako lan poltsa deialdia

Balitzko bajaren bat kubritzeko, NOAUA! Kultur Elkarteko administrari eta dinamizatzaile lanetarako lan poltsa osatu nahi dugu. Interesa duzuenok kurrikuluma elkartea@noaua.eus helbidera helarazi dezake-

zue.

Euskara idatziz nahiz ahoz eta ofimatika programak zein teknologia berriak menderatzea eskatuko da. Hizkuntza normalkuntzako lanetan eskarmentua izatea (koordinazioa eta kudeaketa lanetan, administrazioan, aisialdian, kulturaren...). Euskara elkarten ezagutza eta lan eskarmentua izatea baloratuko da; baita harremanetarako gaitasuna eta iniziatiba izatea ere; gidabaimena eta autoa izatea; eta NOAUA! K.E.-ko bazkide izatea.

Udako txokoak Zubietan

Urtero moduan, Zubietako Guraso Elkartek udako txokoak antolatu ditu Zubietan bertan, 4-12 urte arteko haur eta gaztetxoentzat uztailean. Egutegiaren, astelehenetik ostiralera, goiz partean eta lau orduz, 9:30-13:30 artean. Interesdunak antolatzaileekin jar daitezela hartuemanetan bideotatik: zubietatxoko@gmail.com / 649 659 786.

Ate irekien egunak Lanbide Eskolan

Lanbide Eskolako proiektua eta ikastetxea ezagutzeko ate irekien azken jardunaldia, larunbatean (maiatzak 18) 11:00etan. Informazio gehiago: lhusurbil.eus / 943 364 600 / eskola@lhusurbil.eus

“Elikagaien etiketak irakurtzen ikastea”, hitzaldia Udarregin

Hitz Aho Udarregi Ikastolako guraso elkarteak antolatutako hitzaldi praktikoa maiatzaren 22an 17:00etan, Udarregi Ikastolako eraikin gorrian. Alazne Agirrezabalaga dietista-nutrizionista parte hartuko du hitzorduan.

Sagarrondotik Sagardora

Alkartasuna Kooperatibak otsailaz geroztik abian duen ikastaroko hurrengo bi saioak asteotan izango dira. Izena aurrez eman ahalko da.

■ Maiatzak 18: “Ilargia eta egutegi biodinamikoa. Xabier Akizu.

■ Ekainak 1: sagastien udako kimaketa, gatzak eta izarritak. Aitor Etxeandia.

Izen ematea:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus

Senior nesken futbol taldea osatzera doaz

Futbolearen aritu nahi duten neskek, ibilbide osoa Usurbilen bertan osatzeko aukera izan dezakete uda ostean abiatuko den 2019-20 denboraldi berrian. Usurbil F.T. iraganean une pozgarri asko eman zizkion nesken senior taldea osatzekotan da. Maiatzaren 24rako bilera deitu du 18:00etan Haranen, taldean parte hartzeko gogoz diren neskekin. Dagoeneko denboraldi ederra osatu duen Ainhoa Lizasok, Xabi Lazkanok eta Axier Dominguezek zuzenduriko kadete taldean diren hainbat jokalarirekin parte hartzeko gogotsu dira, lerrootan adierazi digutenez.

NOAUA! Amaitzear duzuen denboraldiaz zer balantze egin dezakezue?

Xabi Lazkano: Denbora zen, kadete nesken taldea ez zela ikusten Usurbilen. Lan handia egin da entrenamenduetan. Pixkanaka partidak irabazten joan eta txapeldunen fase horretan sartu da taldea. Azken partidaren faltan igoerako aukerakin da taldea.

Axier Dominguez: Hiru partida geratzen zaizkigu eta hortxe. Berez fase honetan sartu ginen, txapeldunen fasean. Hiru talde igotzen dira eta oraindik aukerekin gaude.

Usurbil F.T.-k aspaldi izan ez duen taldea da. Baina jada ibilbide bat egin du.

A.D.: Duela sei bat urte hasi ziren. Seniorren taldea desagertu zenean infantil talde bat hasi zen. Urte batzuetako etnaldia egon zen gero, infantilena berreskuratu zen arte. Iaz osatu zen berriz kadeteen taldea. Zuzendaritzak lan handia egin du eta nabari da. Kadete eta infantil nesken taldeak ditugu, futbol eskolan ere neska asko dago.

X.L.: Kadeteetan ditugun jokalarirekin, denak ez esatearren, infantiletatik pasa



Kadete taldean diren hainbat jokalarirekin parte hartzeko gogoz dira.

USURBIL FT

“Maiatzaren 24rako bilera deitu du 18:00etan Haranen, parte hartzeko gogoz diren neskekin”

eta jarraitzeko asmoa dutenak dira. Gehienak usurbildarrak dira, baina baita ere baditugu infantiletan kanpotik etorritako jokalariek. Aukera eman, oso gustura egon eta hemen jarraitzeko asmotan direnak ere.

A.D.: Urte hasieran 27 neska genituen kadeetan. Zenbaki potoloa. Nesken talderik ez egotetik 27 neska izatera aurrerapauso handia da. Zuzendaritzak lan handia egin du, baimenak eta eskatzen. Pozik eta gustura gara.

Zer berezitasun ditu taldeak?

A.D.: Denboraldi osoan, nahiz eta aurkariak zailak izan, partidak ia guztiak borrokatu ditugu hasietatik bukaeraraino. Talde honek hasieratik bukaeraraino dena ematen du.

X.L.: Taldeko giroa ezinbestekoa iruditzen zait eta behin hori duzula, gainerakoa askoz errazagoa izaten da eta hori lortu dugula uste dut.

A.D.: Eta konpromisoa. 20tik gora jokalarirekin ditugu entrenamenduetan. Alde horretatik aberatsa izan da.

Talde berria zer ekarpen egingo duen ari zaio klubari?

A.D.: Kadeteetan 27 neska izanda, seguruena hurrengo urtean kopuru bera izango egon daiteke eta horrek bultzada emango

dio seniorretan taldea osatzeari.

X.L.: Poza ematen du, ez klub mailan bakarrik, orokorrean emakumezkoen futbola eta kirola izaten ari den gorakada. Hori herrian bertan islatua ikustea ere pozgarria da.

Testuinguru honetan sortzen da hurrengo pauso naturala emateko beharra, seniorren taldea osatzekoa. Kadeteen talde honetatik hainbat jokalarirekin egon litezke hurrengo pauso hau emateko prest?

A.D.: 10 bat edo egongo dira hurrengo urtean seniorretan jokatzeko aukerarekin. Taldea sortuz gero oso ondo. Futbol ibilbide osoa herrian egiteko aukera izango da.

X.L.: Izan ditugu txikitan hemen futbolearen jokatzeko hasi eta uneren batean beste talde batera jokatzera joan behar izan duten ezagun eta lagunak. Orain, ibilbide hori Usurbilen osatzeko aukera izango da.

Senior nesken taldea osatzeko zaretu. Hilaren 24rako bilera deitu duzue.

A.D.: Hurrengo denboraldian zenbat jokalarirekin egon daitezkeen kalkulatzeko, batez ere antolaketa lanak errazte aldera.

X.L.: Egoera zein den ikusi eta hurrengo pausoak aurreikusuteko.

Zer esan seniorretan jokatzeko aukera izan dezaketen neskei?

X.L.: Denak ongi etorriak izango dira. Taldea osatzea polita eta beharrezkoa litzateke. Ikusi besterik ez dago orain arte ze giro ona egon den.

Futbola Haranen

Maiatzak 18, larunbata

- 09:30 Alebin neskek: Udarregi 5A-Langile Udarregi 6B-Urnieta 6
- 10:45 Infantil neskek: Usurbil-Ostadar
- 12:30 Kadete neskek: Usurbil F.T.-Tolosa CF
- 15:30 Jubenilak, final laurdenak: Usurbil F.T.-Aloña Mendi
- 17:30 Erregionalak: Usurbil F.T.-Oartzun

Maiatzak 19, igandea

- 09:30 Alebinak: Usurbil F.T.-Aizkorri Urnieta-Idiazabal
- 11:00 Alebinak: Intxurre-Billabona

Eskubaloia Oiardon

Maiatzak 18, larunbata

Eskola Kirolak

- 09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5D-Udarregi 5A Udarregi 5B-Langile B
- 10:45 Infantil neskek: Udarregi A-La Salle Saieko
- 12:00 Infantil mutilak: Udarregi A-Udarregi B

Usurbil K.E.

- 16:00 Senior neskek (Gipuzkoako Kopa): Urbil Usurbil K.E.-Bera Bera
- 17:45 Kadete neskek (Gipuzkoako Kopa): Usurbil K.E.-Zaisa Bidasoa Irun A
- 19:30 Kadete mutilak (Udaberriko Torneoak): Usurbil K.E.-Zalla Taberna Pulpo EK

Andatzakoak

Estoseko bailarara joango dira irailean

Clarabides eta Gías mendietatik barrena 5 hirumilako egiteko asmoa dute irailean 21eko asteburuan.

■ Irailak 21: 6:00etan Usurbildik abiatuko dira autobusez. “Bidean geldialditxoak egin ondoren, Estoseko aparkalekura iritsiko gara, Estoseko aterpera abiatzeko”.

■ Irailak 22: Estos Aterpetik Clarabides eta Giaseko gailurra egiteko asmoz abiatuko dira. “Ondoren, aparkalekura jaitsiko gara autobusa hartzeko eta ilunabarrean Usurbilera iristeko”.

■ Izen-ematea uztailaren 15ean amaituko da.

■ Informazio gehiago: andatzamkk@gmail.com

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukalde, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrenatzeaz. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxea erosi nahi dut Usubilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxebizitza alokairuan, Zubiaurrenean kalean. Berritu berria, azken pisua eta eguzkitsua. 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi. Dena kanpoaldera begira eta igogailuarekin. 696152951

Erdialdean pisua alokatzen da; 2 gela, egongela, sukalde, komuna eta trasteleku. Dena kanpoaldera eta oso eguzkitsua. Hiru balkoi eta igogailua. Tlf: 670070562.

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informeak ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukalde, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 getetako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekabaxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekabaxiki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alperburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administrari-dendari baten beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interesatua bazaude, deitu 943 361 114 edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguru-etako kudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguru-etan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegiaren. info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest,



Zorionak Eire!

Maiatzaren 18an
8 urte beteko dituzu.
Zorionak eta muxu
handi bat etxekoan
partez!



Urte askoan Mikel!

Dagoenerako 11 urte
gure mutilak!
Ondo pasa eta muxu
handi-handi bat
famiaren partez.



Zorionak Naiara!

Gure etxeko sorgintxoak 8
urte beteko ditu maiatzaren
20an! Ondo ondo pasa eta
ospatu zure eguna Nana.
Txoko-marrubizko 8 muxu
handi handi... familia
osoaren partez... Ondo
ondo ospatuko dugu...

OHARRA: 2019ko maiatzaren 24an aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: maiatzaren 20a astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

baita orduka ere. Esperientziarekin: 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorria, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketari, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitalean, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak

zain-tzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urzarrietik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketari. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel. 677 256 701.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztailea edota abuztua (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketari edo per-tsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, ex-

terna bezala, orduka edo aste-burutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia oinok. Telefono zenbakia: 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztailea, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872.

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrik jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonés arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. Tel. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat galdu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Izaro

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Ingleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburukak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 17 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 18 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 19 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 20 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 21 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 22 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Maiatzak 16 - Maiatzak 26

Osteguna 23 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 24 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 25 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 26 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda maiatza

17 ostirala

- **Ziortzako kanpainaren amaiera** Galtzerdiak batzen ari dira Caritasen alde. Kutxak Sutegin, Kiroldegian eta Ikastolan aurkituko dituzue.

18 larunbata

- **Sagarrondotik Sagardora ikastaro praktiko**a 9:00-13:00 Potxoenean.
- **Mendi orientazioari buruzko ikastaro**a 9:30-13:30 Potxoenean.
- **Ate irekien jardunaldia Lanbide Eskolan** 11:00 Lanbide Eskolan.

19 igandea

- **38. Sagardo Eguna** 11:30 irekiera, sagardoa dastatzeko aukera. 12:00 Egurrezko Sagardo eta Muztio lehiaketak. 14:30 Sagardo dastaketaren itxiera. 18:00 ElektroPatxaranga kaleetan zehar.

Ziortzako DBH3 mailako gazteen elkartasun kanpaina amaitzear da

Duela hilabete bat, Ziortzakoak Caritasekin jarri ziren harremanetan. “Caritaseko Aterpeko langile bat etorri zen guregana, zer egiten zuten azaltzera eta gure zalantzak argitzera”. Saio horren harira, Caritaseko kideei laguntzeko kanpaina bat jarri dute martxan. “Kutxa batzuk ipiniko ditugu bertan galtzerdiak biltzeko; galtzerdi garbiak eta erabilgarriak, mesedez”.

“Animatu zaitzte”

Bilketa kutxa horiek Sutegin, Kiroldegian eta Ikastolan izango dituzue eskura. “Beraz, animatu zaitzte gurekin proiektu hau martxan jartzera”. Ziortzako



Galtzerdiak batzeko kutxak ipini dituzte Sutegin, Kiroldegian eta Ikastolan. Batutakoa Caritasekoei emango zaie.

DBH3ko gazteen esanetan, “edozein laguntza ongi etorria izango da. Besterik gabe, mila esker parte hartuko duzuen guztioi!”.

Larunbat honetan, herri kirolak Urbilen

Eneko Saralegi aizkolaria eta Inaxio Perurena harri jasotzailea Urbilen izango dira larunbat honetan. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da ikuskizuna, Urbilgo elkargunean. Amets Arzallus bertso-lariak girotuko du kirolarien ahalegina. Gainera, bertaratzen direnek Saizar sagardoa dastatzeko aukera izango dute.



Inaxio Perurenak hartuko du parte.

Datozenak

Zubietako Udaberri Festa

Maiatzak 18 larunbata

11:00-12:15 “Gurasoentzat” kontzertu meditatiboa, saio berezia Zubietako Kaxkapen. Ez ahaztu esterilla! Ezinbestekoa izena aurrez ematea: 647 587 258.

Maiatzak 21, asteartea

17:00 Eskulanak: ponpoitxoak, txapak, serigrafia (ekarri kamiseta argi bat).
19:00 Buruhandiak.

Maiatzak 22, asteazkena

17:00 “Kontu kantoi” taldearekin ipuin kontaketa eta ilustrazioa.
18:00 Apar festa.

Maiatzak 23, osteguna

16:30 Merendola Zubietako eskolakoentzat.
17:00 Puzgarriak eta trebetasun frogak.

Maiatzak 24, ostirala

17:00 Dantza emanaldiaren irekiera; Agurra, Makil Dantza, Ikurriña Dantza.
17:05 Zubietako antzerki eta dantza taldeak (2 talde dira: HH5-LH1; LH2-3-4).
18:00 Helduen eta haurren plaza dantza saioa (Lolik, euskal dantza irakasleak gidatua).
19:30 Afari-merienda eta ondoren Disko Festa Karaokea!
Antolatzailea: Zubietako Eskolako Guraso Elkarteak.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Inaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825

ETXETRESNEN KONPONKETAK eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665

XABIER Usurbil

OSASUNA GIDA 2019



Irati Ibargoien
FISIOTERAPIA - OSASUNA

ZERBITZU BERRIA

PSIKOLOGIA

- Terapia indibidualak
- Mindfulness

PILATES TERAPEUTIKOA

- Indibiduala
- Taldetakoa

BESTE TERAPEPIA MOTAK

- Presoterapia



943 53 92 66 Puntapax 6B, behea ez. USURBIL

FISIOTERAPIA

- Amatasun prestakuntza
- Zoru Pelbikoko tratamenduak
- Lesioak:** traumatologikoak, posturalak, kirolekoak, ATM disfuntzioak, zoru pelbikoa...
- Teknikak:**
 - Terapia Manual Ortopedikoa (TMO)
 - Fisioterapia eta osteopatia Funtzionala
 - Puntzio lehorra
 - FIM (fibralisis instrumental miofascial)

ZERBITZU BERRIA



USURBIL
OPTIKA

Bigarren lente pareta doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urruneko lenteetan

2. lente pareta doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika
33/17 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatiakoak
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 28/17



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



Lizarralde
ORTOPEDIA

✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA

- ✓ Produktu ortopedikoen **alokairu zerbitzua** (oneak, aulkia, garabiak...)
- ✓ Arreta pertsonal eta **espezializatua**

✚ Teknikari ortopeda kontsulta

👤 Aholkularitza

🏠 Produktu gama zabala

Kazkazuri 1 baxua, OIartzun - 943 543 585/ 688 678 583
www.lizarraldeortopedia.eus

Kima
MASAJE LEKUA

•Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirindulariaren azterketa
biomekaniko eta osteopatikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Öinutsik

podologia zentroa

etorri zaitez zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

SISTEMAZ OSASUNTU
oinetatik

943 11 09 54 zubiaurrenea 2

URDAIRA



Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarrilaren 18tik maiatzak 6ra
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

www.iruinsagardotegia.com



IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi
berria 2019. primerako
sagardoekin
943.361.229



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • **943 55 69 81**



Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

aginaga

SAGARDOTEGIA

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!



%100 bertako saizarra

Tel: 943 365 031

Santuenea